


TEOLOGILARIEN YARDUNAK





ESPAÑ'AN: 10 Laurleko

ONGILLEAK: 20 »

ATZERRIAN: 15 »

YAKIN

(PRO MANUSCRIPTO)

8'gna. A R A N T Z A Z U'n -Gabonetakoa- 1958

ZORIONAK


YAKIN. Bai, YAKIN ba-doa-kigu mardultzen patxadaz.

Zortzigarren zenbakia gaurkoa. Urte askotan eundakaz onelakoak damaizkigula.

Gaur, ezpain-irriparrez, zorionak eskeintzen datorkigu, Eguberri zorionak.

Gabon zoriontsu eta Urteberri naro opa dizkigu bere idazle ta irakurleoi.

YAKIN



TEOLOGİ-
FİLOSOFİ
SƏİLLƏ

AITA

SANTUAREN

ITZA

Urrillaren 9'an XII Pio beste mundura joan zitzaigun. Eriotzak, lapur tankeran, gutxiena uste gendunean kristau erriari Aita ta Arzaia kendu dio. Azken emeretzi urte aietan, kristauak ez-ezen gizadi ososak ere Aita zarrari itzal zion. Katolikoak, kristau ta gogo oneko gizonak oro ain biotzako zuten gizon santu ura il dala jakitean barnean sortu zaizkien biotz samiñak agertu ditute. Semeak Aita il berria nergartu oi duten bezela, gizadiak ere negar dagio, iñor ez bezelako gizon jakintsu, pakezale ta santua galdu dula konturatzean. Erri-agintariak Kardenal biltzarrari bidali dizkioten biotz-min agurretan "gizadiak XII Pio'ren eriotzarekin galera ordaiñeza" izan dula aitortzen dute.

Ez dabiltz oker. Eleizak gizaldien barrera izan ditu zuzenlarri ospetsuak, bañan au bezelakoak gtxi. Izan ere era guztietara agertu zaigu XII Pio aundi, maitagarri, txalogarri: erabateko gizon, pakezale, mota guztitako jakintzetan ikasia, apaiz, irakasle, artzai ta santua batezere.

Santua batez ere.

Ypar-Ameriketako Lendakariak ola zion biotz miña agertzean:" Aita Santuaren eriotzarekin gizadia len baño txirogo

gelditu da. Bere bizitza Jainkoarentzako zaletasunez beterik zegon". Otoitzean ikusita berarekin mintzatu diranak diote, gogo zerutarrez inguratirik bizi zala. Bete-betean bizi zun barne-bizitza kanpora azaltzen zitzaion. Mundu guztiko zintzoen iritziak santutzat jota dauka. Zer oribaño pozgarriagorik kristauontzat, bere seme kuttunontzat?

Pakezale.

Erri-Agintariak ere gora jasotzen ditue XII Plok aizkeneko 19 urtetan ta batez ere Pedroren Alkira igo zan egunetan, mundu guztian zabaldu ziran guda zakar baten txinpartak itzaltzeko egin zitun alegiñak. Guda bere ondarrera iritxi zanean, kukurruku jo zuten erri gagusiei pake zuzenaren oñarriak garbi azaltzen dizkie: "Aizatu ditzagun gezur eta gorrotoa, betoz aien ordaiñez egia ta elkar maitasuna" [A.A.S., 37 (1945), 129 S.].

Ez itzez bakarrik, baita ere otoitz eta diru-laguntzaz begiratu du pakearen alde. Guda-erasoa Erromako urira erortzean gizartea arritzeko eran, XII Plok bere seme kuttunontzat ardurarik txalogarrienak azaldu zitun. Kalez-kale, eriotzaren bildurrik gabe zaurituak eta bear gorrienean agertzen ziranei laguntza ugaria zabalduz ibilli zitzaion. Ludi guztiko seme-alabei zuzendu zizkien Eguberritako itzaldiak askotan pake-deiak izan dira.

Artzai ta Irakasle.

Bere itzaldi ta idazki uagriak aztertzen baditugu bereala konturaten gera irakastea izan dala XII Plok landu digun sororik zabalena. Aita Santuak, Pedrogan, Kristogandik kristau artaldea zaitzeko agindua jaso du. Artzai onen txistuak, urrezko erakuspen jator oiek ditugu. Bera izan degu argi, illunpeak uxatuz, 19 urte auetan. Kristo, Pedro ta Paulo bezela "dana danentzat" egin zaigu. Bere erakuspenetan adimen xeenak ere, animaren janari ta argi lortu dute. Jakintza arloan bere lanak zenbatu eziñala dira. Bere itza adimen guzietara jarririk agertzen zaigu. Ta bere itzaldiak irakurtzean nork esango luke Aita Santuak burua aspalditik

elurturik zeukala?

Soña zaartu zitzaion baiñan gogoia beti gazte, bizi ta ernai. Gogo orrek zemakion soñari ezoa, indar berri ta bizkorgarri. XII Piontzat gogoia, zuaitz zimurmuarentzat, ezo bizigarri bezela zitzaion. Gogoak ere eusten zion, Aita Santua izateak zekarzkion eguneroko lan astunetan.

Aita Santu onen itza lau aizetara zabaldu zan. Bera izan da ere Aita Santuetan lenengo radio ta telebisiioaz baliatu dana, orrela bere itza kristau guztien entzutera iritxiz. Mintzatzeko XII Pio bakarra izan degu. Izkuntzarik ezagutuenak ba-zekizkian ta orri esker seme-alabei Aitaren mintzoa ulergarri zitzaigun. Bere itzak dirgai zegien illunpetik oraindik ateragabekoei, bide okerretara saiestu ta obenetan murgildu ziranai ta bezez ere zeruko bidean aurrera zijoztenai. Berak, artzai zugar azalduz, bidetu du Kristoren artaldea zeruetako larretara, bere itzaldi ta idazki nagusien bidez. Auek naiz azaletik aztartsen jarri, liburu lodi baten orriak beteko lituzteke. Berrogeita bi idazki nagusi edo "Enciclica" eratu ditu; denak ezin aitatzuz ezagutuenak or dijoaz:

Summi Pontificatus	1939
Mystici Corporis	1943
Div. Afflante Spir.	1943
Dieparae V. Mariae	1950
Mediator Dei	1947
Humani Generis	1950

Itzaldietan berriz Aita Santuaren lanak ez du mugarik. Batikano'ko jakin-iturritik millaka ta millaka gizonak edan dute, adimen xee ta mardulak (nekazari, ertilari, jakinzale, gaixo ta beren sendagille, ikasle, edestigille, langille-nagusi, langille, gudari, jostun, sendagille, ezparringille, t.a.) ase; bakoitzak gizartean daukan egitekoa, bere artu-emanetan nola jokatu ta lan-nekeekin zerua nola irabazi aietan argi ikusi du.

Azken itzak.

Azken illabete auetan XII Pionen jakin-iturriak gaiñezka egin dula dirudi. Iru asteen buruan, agorraren 10'tik urri-

llaren 4'ra, 15 itzaldiraño zuzendu zitun, oieta-
tik asko sendagilleai. Urrillaren 5'ean aizkeneko
aldiz Castalgandolfo'ko jauregitik notarioei zu-
zendutakoarekin amaitu zan XII Pioren itzaldien
lerro luzea. Baiñan ba-zun beste bat oraindik era-
tuta, Apuli'ko apaizgaiari egiteko asmotan:

Apaiza zer dan eta nolakoa bear dun izan
erakusten digu argi:

Jainkoaren aldetik, apaizari, kristau
izatearen aunditasuna bete-betean datorcio: Kris-
to bigarrena izatea. Bere aldetik berriz, gizona
danez, artu duan aunditasun orri, al duan neurri-
an erantzutera beartua dago, bere gai biurtuz, au
da, biotz guztiz bere nortasuna Kristoren nortasu-
nean murgildu, orrela apaizaren bizia Kristo de-
din. Kristo Apaiz Nagusia eredutzat arturik, bere
osotasuna beragan sortzen, txertatzen saiatu. O-
rrrela apaizak ez du bere bizia biziko, Kristorena
baizik; areago, Kristo berbera da beragan bizi da-
na (Gal. 2, 20).

Beste batean ola dio: "Apaiza Kristoren
eskuetan tresna bat besterik ez da; Kristok, iru-
digille bizkorraren antzera, trintxa egokiren bi-
dez animetan Jainkoaren irudia sortarazten du".

Orregatik apaizak bere izakeraren bi al-
derdiak (gizon da Jainko) batean bear ditu, beste-
la ez daiteke erabateko apaiz izan. Beraz bedi le-
nik oso-osorik gizon. Paulo donearen "perfectus
homo Dei" ori bete nai badu jatorriz ditun aberas-
kizunak, bagez ere animaren almenak edertu ta lan-
du bearrean arkitzen da, oiek danak santutasunak
erabat burutzen ditula. "Bitez garaian garaiko
jakintzetan ikasiak, orrela erriaren gogoa "jakin-
tsuak ta santuak" bete dezaten. Oiek danak bera-
gan ditunean apaiza egin bedi Kristoren esaneko;
bestela, Jainkoak ezer gutxi egin dezake lepa go-
gorrarekin".

Erakuspen jakintsuak eta jasogarriak
iñolaz ere XII Piok itzaldi ontan lerrotu dizki-
gunak. Bere itza azken egunetan ere dirdaitso zi-
tzaigun; baiñan une batetik bestera, illunbarre-
ko eguzki-printzak mendi-bean gordetzen diran an-
tzo, Aita Santuaren itza itzaldtu zaigu eriotzaren
eragiñez, naiz gizonen oroimenetan betirako marka-
turik gelditu.

XXIII Jon, Aita Santu berria

Aita Santuaren itza ixildu da, bai, baño une baterako besterik ez. Mendi atzean sartu dan eguzkia biaramonean sortaldetik iñoiz baño ederrago, dizdiratsuago ateratzen zaigu bere urpezko dirdaiak erreka lañoak aizatuz, erri ta mendi margoak gozatuz itxaropen berriak sortzen dizkigula.

Orrela ere kristau erriak Aita illa negartu ondoren, bere seme zarrenak batzarrean bildurik, Aita Santua aukeratu du. Gogo Gurenak aukeratu dio Elizari Zuzendaria, ta len mundu guttian "Aita Santua il da" zabaldu zan bezela, orain "Gora Aita Santua" diogu lau aizetara. Len, semen biotzak aita galtzean samin arkitzen ziran, orain berriz poz gañezka. Elizak berriz ere ba-du Artzaia, Zuzenlari, Itza ta txistu gozoa.

Ezer ez da aldatu. Jesukristo gaur, atzo ta beti. XXIII Jonek bere aurrekoak utzitako zama astuna bere gain artu digu; berak darama gizadi osoa bide ziurretatik ta bere babesean artaldea artzai zintzoarekin bezela. Ta Jainkoaren argiz erri artetik aukeratutako gizonak itzegin dio bere artaldeari. Pake itzak artzai berriarenak, aurrekoaren aztarnak jarraituz. Ortan ere biak Kristoren jokabideari jarrai diote: Berpiztu ondoren apostoluei azaltzerakoan emandako pake itzakin oles egin zien zien Kristok: "Pakea zuekin" (Jo 20, 19; Lc 24, 36). Ta aingeruak Be-lenen bezela, Aita Santuak gogo oneko gizonei pakea opa ta eskeintzen die. Izan ere gizadiaren zoriona pakearen esku dago; pakea bera bakarrik ludi ontako aberaskizun ta aurrerapenak baño iritsgarriagoa da. Ondasunak pakerik gabe, begiak argirik gabe edo janari gozoa goserik gabe bezela ditugu. Beraz, naiz ez izan erreza, pake ori iristen saia bear gera.

Entzun Aita Santuari: "Zer eskatzen dizue erriak? -die erri-gizonei-. Zer nai dute zuegandik? Ez dizkizue eskatzen noski anai-erailtza eta gizadiaren ondarena ekarri dezaketen izkillu ikaragarri oiek, ez, pakea baizik, bere babesean gizadi-sendi aundia onaro ta bere esku bi zi dedin..." Baiñan pake orri, kanpoko pake orri,

barnetik datorkio izatea: " Jainkoaren erlijio santuak indartu, sendotu ta ornitu dezake pakea" (XXIII Jon'ek Aita Santua egin ondoren Kardenalari zuzendu zien itzalditik).

Asmo berdiñak urratzen zizkien atzerrietako ordezkariel bera koronatu zuten eguenean. Beraz, gure Aitak, Artzaiak senidearteko pakea eskatzen digu bere lenengo itzaldian.

Koronazio egunean kristau erriari beste itzaldi entzungarri bat egin zion XXIII Jon'ek, Aita Santuaren egitekoa beste edozeren gaiñetik dagola aditzera emanaz: "Erroma'ko gotzaiaren egitekoa beste guztien gaiñetik artzaiarena da". Ez ordea, berak esaten digunez: "Gizon askoren usteak bide zuzenetik saiesturik dabiltz, Aita Santuagaz iritzi okerra dutela, erri gizon, giza-legetan bizkorra, jakintsua izan bear dula ustean. Aita Santuak gizonen naigabeen aurrean Josek bere anaiekin bezela jokatu beza, baiña batezere azaldu bedi Berri-Oneko Artzaiaren antzeko, Kristoren urrezko itz aiek egi biurtzen ditula "Ni naiz artegiaren atea". Egizko artzai eta gidari ere azalduko da artegi ortan artu dituan ardiak ez-ezen, urrutiko zelaietan galdurik, oraindik artzaiaren txisturik gabe dabilten ardi errukiorrak erakartzen saiatzen da. Baiñan ori dana aurrera ongi eramateko "egintzak berak baiño egintz oiek bizkortzen ditun arnasak garrantzi geiago du".

Amaitzeko dio, Aita Santuaren bizitza apaltasunean ta otzantasunean zindoturik bear dula egon, Kristok bezela bere erriari esan al dezaion: "Ikas ezazute Nigandik biotzez apal eta otzanak izaten". (Koronazio egunean egindako itzalditik).

Muxika'tar Errupin

Lazkao'ko Beditarra

BERGSON'EN

JAINKO-INTUIZIÑOÀ

1959'ko urte onetan ospatzen dugu Bergson filosofilariaren jaio zantiko eun-urtea. Ain zuzen ere, XIX'go urte berean ikusi zuen leenbiko argia Paris'en. Jatorriz judutarra bera. Azkemeko eun urteek eman dizkiguten literaturagille -1928 Nobel Saria- eta filosofilari goenetakoa. Eunkada-urte au aitzaki dudalarik, izan bekit zillegi bere teodizea aztarnatzea.

Amazazpigarren gizaldia ezkerortik, Frantzi'ko filosofia -geiena bai beintzat- errazionalismu bideetatik joan zaigu. Errazoi otz eta geometrikoak, zuzendu dituen pentsalari ta filosofilarien aurka jeiki zan Bergson. Gaurko irrazionalismuaren buru nagusienetakoa da bera. Baiña gogorà dezagun, Bergson'ek ez du intelektualismua kondenatzen, intuizionismuaren bidez osatzen baizik. Errazoa bearrekoa dugu; berarekin bakarrik ez dago, ordea, filosofia egiterik.

Bere metafisika eboluziñozkoa da. Ontologia dena, edo obekiago, izaki dena eboluziñozkoa da berarentzat. "Eian vital", bizitza-bultzada, eragille batek darabilki kosmos dena; beti itxasora doan ibai bat da izadia. Beti ibilli dabil mundua; eguzki eziñitzali bat da bera, sugar ta txinpartak darizkiola dago. Ez dago, ez, egonean, dabil baizik:

eraberritzen ari da beti. Une bakoitzean jazki, aurpegi, berriak ditu ludiak: itxaso jolaslaria bera. Eboluziño zoragarri au darabilkien taupada, "élan vital" ori duzu.

Nola ezagutu dezakegu mundu aldakor au? Izaki guzieri ezartzen dizkiegun kategoria alda-eziñez uler aal dezakegu izate konkretua? Au ez diteke iñola ere. Konzetuzko ezagutzak izatea inguratzen duten esi-paretak dira; ez, izakian barrena sartzen dan aizkora: ez dute izatea bera atzematen. Izakia ezagutzeko, bizi, bizi egin bear dugu izatasun ori. Adimen utsak izatea ain gaizki ezagutu badezake, areago oraindik izaki au, konzetuak ez baitigute ezer bakoizkirik, konkreturik, ematen; "au-tasun" guziak iges egiten baitzaizkie konzetueri, zubipean ibai-ura bezela. Kosmós dena bizitzeko, bere taupadak gure biozkada biurtzeko bide bakarra, intuiziñoa dugu.

Beraz, ontologian eboluzionismua eta gnoseologian -ezagutza-jakintzan- intuizionismua. Ezaazu: beñetako ezaguketa, izatea biziaz bakarrik iritxi dezakegunik.

* * * * *

Ludia bi zatietan banatu dezakegu: gizadia ta errazoigabeko dan oro. Natura bakoitzak bere jokabide berezi ta egokia du. Mundu guzian ez dugu, ba, jokabide berdiñik; bakoitzari, berez, dagokiona baizik. Beeko izadiak sena, instintua, du bere bizitza-zeregiñetarako; goitikoak, berriz, adimena. Arek zuzen eta bearrez betetzen du bere eginkizuna: determinismu itsuak darabilki. Adimenak ez du orrelako eragite bearrezkorik eramaten, esentziz aske, libre, baita. Baiña libertade au arrisku gorri bat da gure bizitzarako.

Kartzelako ormak giltzapetuarentzako dirana, ori bera da guretzat askatasuna. Bakoitzak, nolanai zuzendu dezake bere burua gelatxoan, jaun eta jabe da bertan. Baiña askatasuna aalmen ori gorde nai badugu, gizarte-bizitzari uko egin bear diogu. "Nerekoikeria" sendotu egiten du askatasunak; baiña "gerekoitasuna", gizarte-elkar-

tasuna, neurri berean, auldu egiten digu. Artaldekeria garaitu egiten du askatasunak eta, bear bada, gizonagotu ere bai; baiña bai baliotsua "gerkoitasun" onen ordaiña: lagun urkoagandik urrunduegiten gaitu libertadeak.

Ez ote ditzakegu nolabait "nerekoikeri" ori ta gizarte-elkartasuna adiskidetu? Betirako etsai ote ditugu biok? Libertadeak errazoimengia ematen digu, abereen gaindik jartzen gaitu; ba-du, ordea, oztopo bat ere: porrot egitera garamazke noiznai. Natura jakintsuak ezin gaitzazke orrela arrisku orretan, utzi; eboluziñoak, aurreratuena gizonagan izanik -eta Bergson'ek ola dio-, ez gaitzazke gizadiaren ondapen bidean jarri.

Gizonagan gizarte-joera bat aurkitzen dugu. Gizarterako jaiok gera. Naturak, eboluziñoaren bi puntetan jarri du soziedadea. Alde batetik, insektuak -txindurri, erle, t.a.-, elkarre-senaren bidez batu ditu naturak. Bestetik ere berebat gertatu da: gizonak, berez, gizartea bear du; baiña elkarte au ez da derriorrezkoa; guk ez dugu gizartea instintu batek eragiñik billatzen, errazoikero eta libertade osoz baiño. Leentxeago esan dudanez, askatasun onek aalmen bildurgarri bat inguratzen digu: lagun urkoari ezetz erantzuteko aalmena. Aalmen au lotu ez badezagu, ondamentira joango gera. Emen fakultade berezi bat izan bear dugu: ezin diteke, gaiñerako izakiak ain ederki osatu dituen natura, gurekin oinbesteko amaizun tzarra izatea.

Errietan mitu eta siñiskeri asko dira. Erri guztietan aurki ditzazkegu, bada, superstiziñoak. Antxiña-pentsakera, mentalidade primitibu, aspaldiko errietan, eta berebat gaurkoetan ere, ba-dugu ori. Gizonok berez dugu mundua jainkotu eta espiritutzeko joera. Gizaki bakoitzak du pentsakera ori itsatsirik, eta berak eraginda, sortzen ditu iduripen eta instituziño asko. Guzi ok, gizarte-bizitza jakin bat jaiotarazten dute. Bizitza onek, antxiñako gizaki-pentsakeraren ondorioa danez, gizarteko mentalidade bat eratzen du. Gizon bakoitzaren antxiña-pentsakera bidez, gizarte-mentalidade bat jaiok da. Ez dezagun orain eta aurrerakoan aaztu bi mentalidade oiek ba-daudenik.

Oraiñarteko psikologiak, eginkizun oiek denak irudimenari ezarri dizkio; ala ere, oiek bakarrik balira, gaitzerdi... Psikologi tradizi-
ñozkoarentzat zenbat eginkizun ez ditu irudipenak! Langille guzi-altsua auxe!: jakintza-aurkikuntzak, erti-lamak, mituak, literatura, teogoniak t.a., denak irudimenari darizkionak dira. Oinbeste irazaki, kreatura, ez berdiñeri nola eman dakieke iturburu bakarra? Orretarako ez dago arrazoi positiburik; onela egin bada, beste zein aalmeni ezarri zekizkioken iñork ezekielako izan da.

Beraz, emen ba-da, oraiñarteko psikologiak aurkitu ez duen aalmeneren bat. Bergson'ek "fabulation" itzez izendatzen du aalmen ori. Fabulation eu instintu birtual bat da, au da, abere-sena izan zitekean fakultade bat. Olako zerbait abereengan ere aurki dezakegu, insektu elkartezale batzuegan ikusten ditugun zenbait irudi, adibidez. Fabulation-a abereengan tinkatu balitz, elkartasunaren eusle diran irudi edo instintu oietako bat izan zekieken; baiña gizonagan, errazozko geranez beste bide bati jarraitu dio.

Nola jaio da guban fabulation aalmen au? Izadiak jarri du gure errailetan eta bearrak -izate-goseak- eragiñik esnatu zaigu. Libertadeak anarkismua sartu digu barnean. Arrisku kaskarra litzake bera, gerekaxa bizi bearrekoak, gizarterako egiñak ez bagiña. Libertadea gizarte-menpekotasunaren etsai izanik, gizonari askatasuna ematea, zoroaren eskuetan ezpata jartzea da. Gizarte-zaletasuna eta libertadea: ona, bi ezpaiñeko dilema zorrotza. Nork adiskidetu dezake antinomia au? Bizitza-larriak ito egin nai gaitu. Bizitzak zilindro luze ta estu batean sartu gaitu: ito egin gaitzazke, ain medarra baita gure bizi lekua. Bizitzak, bere eginbearrez, txautu egingo gaitu, zabarkeri txikienean. Ez daukagu gure bizitoki onetatik irtetzerik: ain luze ta estua da, izan ere, gure bizitza-zuloa. Bizitz-mixeri ta zikin-keriak gurekin daramazkigu beti. Jolasean eta lanean, gau ta egunez, beti barne-ekaitza zigorkatu ta oiñazten ari zaigu gure izate kaxkarra. Izate neketsu onek borborka irakaiñarazten gaitu, eta erraien biotz-muiñetatik nekelarri onek, izaki lirain eta lilluragarri bat ateratzen digu.

Gure arimako itxaso asarretuaren kolkotik, Afro-dita berri bat lez, egunsenti zuri-gorrixta bat jeiki da: onatx, nola agertu dan fabulation ori. Zerutik zetozkigun odei beltz-illunak, berak uxatu ditu, eta zeru-zapai urdiña izar ñirñirlariz -jainkoz eta legez- bitxitu du, kaira zuzendu dedin gure bizitza-ontzi nekatua.

Fabulation-ak, adimenaren morrontzatik askatu egiten gaitu, eta bear ere bai: berak erakusten baitigu errealidadean gure ames-elburura ezin gaitetzkena. Ler eragin dezaiguken ikuspena auxe! Gure barne-izadia jainko jaio-berriz ugari dago; auek ditugu orain, bizitzan, bide-lagun. Fabulation-ak izanarazi ditu, gere il-zoñiaren gorriak aalmen ori esnatu duenean. Errealidade berri-bikain batez jantzi dugu mundua. Fakultade onek erlijio bat ematen digu: erlijio estatikoa. "Eren buruaren irudiak ikaratzen dituen aurrak bezela, gizonok ere bildur gatzazkie eta adoratzten ditugu irudimen-sutegian lantzen ditugun sasi-jainkoak". Voltaire'ren esakune ari erantzun diogu kreaziño onekin: "Jainkorik ez balego, sortu egin bearko genuke".

Erljio onen bete-bearra errez uler dezakegu: etorkizunaren bildurra uxatzen du; adimenari gogor egiñik, gure ametsezko meta iritxi-eziñaren eta errealidade lortu kaxkarraren arteko utsunea betetzen du. Gizartea, gizonon "nerekoikeriagandik" -etika-lege bidez- gorde egiten du. Azkenik erlijio au, eriotza-izuaren gozagarri da. Eriotza-fatalismuak oial beltzez bildu gintzazke, eta larri onek bizitza eragotzi ez dezaigun, erlijio estatiku au eman digu fabulation-ak. Baiña nola egiten du mirari au? "Nerekoikeriari" etika-legeak aurkezten dizkio, etorkizun illunari jainkoen hegirapen-ardura, eta eriotza-bildurrari beste bizitza. Erljioa ez da, ordea, irudimenaren frutua bakarrik; sasi-jainko auek gora-beera, ba-dago beste egizko bat ere.

Egizko au erlijio dinamikuan aurkitzen dugu. Estatikua, bildur-erlijioa da; beste au maitasunezkoa. Ura ezerezak bere atzaparretan eramango gaituanaren bildur da; au, berriz, Aso-lutuaren izate beroa irrikatzen dago. Leenengoa, gizonagandik zerurako mezu bat da; bigarrena,

Jainkoak munduari ematen dion miña.

Munduaren eboluziñoa ez da izaki guziongandin berdin aurreratu, materia batzuk aldakaitzago baitira. Gizonagan aurreratu da geienik; baiña gelditu egin da, dirudienez, gudan ere, eta egote galgarri au astindu nai badugu, eboluziño-bultzada etorri dakiguken iturritik edan bear dugu. Zuzendu dezagun bizitza-aurregia gure aurrerapena bultzatzen duen eguzkiaganantz, bestela ez baitugu iñoiz eboluziño-jomuga eskuratuko. Bergson'en erlijio dinamikuk, mistika bidez egin nai du eboluziño-dynamis orren iturburuari gere buruak idekitze au.

Mistikak bakarrik eraman gaitzazke Jainkoaganaiño, Jainko-izatasuna nolabait ikututzera. Mistika bidez, eboluziñoarako adorea kosmos osoari ematen dion labe gori orreri urrera gakizkion. Erlijioan ere Jainkoagana eraman nai gaitu, eta au mistikaz bakarrik dezakenez, mistika izango da erlijio-mami ta muiñ dena. Erlijioak mistika-menpean egon bear du, eta ez osten. Bergson enpirista izanik -enpirista osoa, ordea, - etzezakean beste biderik artu, mistika bakarrik baita Jainkoaren bizitzazko esperientzia.

Errazoikete oni zerbait erantzun dezaiokegu; zera, mistikazko argumentaziñoa bakoitzarentzako dela bakarrik, ez duela guzientzako indarrik, Jainkoaren izatasuna mistikuari bakarrik agertzen baitzaio. Objeziño onek ba-luke baliorik, mistiku bat bakarra izan balitz; baiña asko izanik eta elkar-artu gabe, gauza ta Jainko-izakera berdiña ikusarazi digutenean, ez daukagu beren testigutza ontzat eman besterik. Guziok ez dezakegu musika ulertu; baiña nork esango luke musika, uskeri bat, irudimenkeri bat danik? Orobat gertatzen zaigu mistikarekin ere: batzuek, edo geienek, ez sentitzeak ez du ukatzen mistika Jainko-esistentziaren proba benetakoa danik. Ainbat esploradoreek esaten dizkigutenak siñisten baditugu, zergatik ez mistikoeri?

Bolkan bat dela esan genezake mistika-bizitza. Aspaldian paketsu, ixillik, egon da; baiña bat-batean labe zaarrak ausi eta erraiak borbor-ka dituelarik, su-arnaska asi da. Ori bera egin du mistizismuak ere: erlijio estatiku otz eta gogorra

urraturik, Jainkozko maitasunez sutu nai du mundua. Arima, berekoikeria aazturik, "dei egiten dion abots bat entzun bailuen, gelditzen da. Gero zerbaitek aurrera daramaki. Darabilkien indarra ez du aurrez-aurre igartzen; baiña ikuspen sinboludunez, bai bere prezencia sentitu". Ama seaskan dagon aurragana bezela, Jainkoa ere arima gaiñean makurtu da: lako barean lur-ertzeko zugaitzak lez, Jainkoaren irudi garbia jolasean dabil arima-barnean. Bai leguna Jainkoaren goxaketa! Arima dena balsamu bigunez betetzen ari da: Jainkoa bere biotzean eta Berarekin aski zaio.

Baiña ez da betikoa gozotasun au. Pittinka-pittinka zerua berriro illuntzen ari da. Ba-dator gau illuna. Bereala ekin bear duen ibilaldirako, Jainkoak arima prestatzen ari delako da gau au. Gau onen bidez, eta Jainkotu dedin, arima garbitu egin du Berak. Illunbe onen ostean ba-dator berriz ere Jainkoa eta estasi goxo batean Berari besarkatzen zaio. Jainkoak arimari, bekoki gardenean, ezkontza-muiña ixuri dio, kreatura guzienganako bere maitasuna adieraziaz. Bere maite-saria da. Jainkozko izakiarekin izan duen ikutze orrek lilluratu egin du arima, ain baita eztitsua Jainkoaren ezatasuna. Bultzada eziñeutsi batek eginkizun gogorrenetara darama arima. Askatasuna Jainkoaren egite berarekin batu zaio. Gizon denak Jainko orrengana eraman nai ditu; giza-diari beste mundu ori erakutsi bear dio, berak ere ikusi, ikutu ta bizi dezan. Maitasuna... amodioa..., orra or bere apostoladutzaren jatorria; Jainko-maitasunak eraberritu beza gizadia. Obeagotu-goseak eragiñik, katoliku mistikuek -auek bakarrik baitira egizko mistiku- dike bat apurtu dute eta bizi-ugolde batek bere zurrunbilloan arrapatu ditu, konzeziño ta errealizaziño aalmeñez betetzen dituelari.

Misitizismua da erlijio-dinamikuaren esentzi osoa. Mistika gabeko erlijioa ez da benetakoa. Mistika ez da erlijioagandik jaiotakoa, bestela baizik. Erlijioa mistikaren bulgarizaziño bat da. Mistika, berez, uts-utsik, gutxientzat da; baiña dogmaz jantzirik, guziok bizi dezakegu, nolabait bada ere. Erlijioa, bada, geienok bearrekoa dugu, batez ere, gogmazale diranean bakarrik agertzen dirala mistikuak ikusirik. Ba-dituz-

te noski bi oiek ar-emanak.

Eta bukatzeko, aitor dezagun, mistikuek kristianismuan bakarrik aurki ditzazkegula, eta beti Kristo'ren imitatzaille dirala, bakoitza bere neurrian bada ere, inork ez baitu oraindik Ebanjelioetako Jesus osoki imitatu.

* * * * *

Katoliku batek Bergson'en teodizea au onartu al dezake? Baietz uste dut, ontologia aldetik bere pentsamendua zerbait beartu ezkeror beintzat.

Estatikua Bergson'entzat erlijio naturala da; erlijio natural denak bezela, bizitza koxkorrekoa. Gizadi jaiotzan ez genuen dinamikua besterik; baiña gizonak, jatorrizko pekatuak eraginda-edo, sasi-erlijioak sortu ditu: orra erlijio estatikua nola jaiotarazi dugun. Gure leenengo gurasoak erlijio positibua bakarrik ezagutu zuten; Errebelazioa au illuntzean, fabulation-ak, ordeko bat asmatu zuen: estatikua, natural soilla.

Bergson'en erlijio dinamikua kristaua dela esan genezake, Kristo teofania bat danez, mistikarik bikaiñena Bera da eta kristianismua Beragan jasoa da. Erlijio dinamikua ere mistika bera da, esan dugunez. Kristianismua ta erlijio dinamikua bat datos, ba.

Bergson sinpatiz ikusten badut ere, ez daukat noski berak esandako dena bataiatzerik, zerbaitegaitik dauzka Index-ean ainbeste liburu ajolatsuenak: "L'Evolution Créatrice" t.a.


Intxausti'tar Joseba ofm.

Bibliografia:

BERGSON (Henri): "Les deux sources de la moral et de la religion", edit. Alcan, Paris (1933).

Liburu onetatik jasoa da ikusi dugun Bergson'en teodizea. Sarrerarako beste liburu auek erabili ditut:

- CHEVALIER (Jacques): "Cómo Bergson encontró a Dios", "Rev.Fil.", XI (1952), or.552.
- KLIMKE-COLOMER: "Historia de la Filosofía", edit. Labor, Barcelona (1953), or.714.
- MARITAIN (J.): "De Bergson a Santo Tomás de Aquino", Buenos Aires (1946).
- SCIACCA (F;M.): "Dios y la Religión en la Filosofía actual", edit. L.Miracle, Barcelona (1952), (trad. A. Muñcz Alonso).
"Historia de la Filosofía", edit. L.Miracle, Barcelona (1950).



AINGERUAK ETA GU LITURGIAN

Egillearen eskutik ateratako izakiak oro, iru maillatan jarriak daude: goienekoak, aingeruak; erdian, gizona; eta gizonaren mendean, abere eta lurrak. Baiñan, liturgiaren iritziz, iru mail oiek bat egiten dute, irurak egiteko berdiña ta bakarra dutelako: Zeruetako Erreiñu' rako lan egin; jakiña, bakoitzak bere erara ta neurriak, baiña irurak lantegi batean ari dira.

Eta egiteko ori batasun-lokarri dute. Gizonen artean orixe gerta oi da: lan mota berdiñak mota artako langilleak batutzen ditu, esaterako: zurgilleak, zurgilleekin; argiña argiñeekin. Filosofian "unio moralis" deitzen diote orrelako batasunari. Jainkoak egindako izaki guztiak era ortara elkarri lotuak daude, munduaren batasun edo "unio cosmica" egiñik.

Lan berdin ta batasunak artu-eman sendoak dakarzte, geienean. Gizonak izaki mota guziekin ditu artu-emanak, bai lurreko ta bai zerukoekin; baiñan aingeruekin ditunak bereziak dira.

Liturgian, nunai topatzen ditugu gizona ta angerua, alkarren ondoan. Artu-eman auek aspaldikoak ditugu, Eden baratzen sortuak. gizona lur ontara agertu orduko, bere saietsean zun aingerua. Gerostik, gure ondoan dabilkigu, auzoko bat dugu, auzoko ta babes lur ontan ta gero betiko bizi-lagun zeruan: "Arreta bereizi batez Aingeru Santuak

gu zaitzeko bialtzen dituzun Jainkoa; gauzkatela, arren, beti bere babesean, eta gero aien lagun gaitzela beti zeruan" (Aingeru-Zaindarien Meza-ko otoitza).

Etsai deabrua gure inguruan nor iretsi-ko ibilli arren, lasai oieratu gindezke illuna-
barrean, gañaz ere aingeruak gure ondoan izango baititugu: Beude emen zure aingeru santuak, gu pakean zaitzen (Arrats-otoitz bat).

Eleiza Ama Donea bein eta berriz ainge-
ruen laguntza eske daukagu: "Bidali zerutik zure Aingeru Santua gu gorde, berotu, zaindu ta yagon gaitzan"(Asperges'ko otoitza).

Aingeruak ez ditugu lagun bakarrik, bai-
ta ere senide: guziok (aingeruak eta gizonak) Jainkoaren Sendi aundiko seme gera. Liturgiak ur-
tean bein itzegiten digu sendi ontaz: Santu gu-
zien egunean. Jai ori ez dugu bakarrik zeruratu
zaizkigun senideen eguna, baita ere lur ontan bi-
zi geranon eta aingeruen eguna; Jainko-Sendiaren
jaina da: Bildotsa buru dutela, Aren Ama Birjiña,
Aingeruak bederatzi sail aunditan, Apostolu, I-
garle, Martiri, Aitorle, Neskaxa garbi ta mundu
ontan Jesukristoren irakaspenari jarraitu zaizki-
on guziak dute egun ortan beren jaina. (Ikus Bez-
peratako goratzarrea). Sendiaren jaina, senditar
guztien poz eta atsegiña da: "Poztu gaitezen oro
Jaunagan, Santu guzien egun aundi au ospatzean,
aien jai eder ontan pozten dira aingeruak..."
(Sarrera).

Senditar guztiak senide ta bitarteko
ditugu: "Aingeru, Goiaingeru, Alki, Nagusi, Buru-
zagi, Agintedun, Zeruko-Indar, Kerubin eta Sera-
pin, Len-guraso, Igarle, Lege-irakasle Santu, A-
postoluak oro, Kristoren Martiri, Aitorle Santu,
Jaunaren Neskaxa garbi, Bakarzale ta Santu oro,
zakigute bitarteko" (I Magn. Birleloa).

Ama baten seme ta Erregin baten mendeko
gera gizon eta aingeruak: Letanitan "Aingeruen ta
Santuen Erregiña" deitzen diogu Andra Mariari.
Egiz dio beraz Liturgiak aingeruak lagun ta erki-
de ditugula: "Lagun ta erritar ditugun Aingeru-
-taldeak pozten dira" (Uztailla 15. Gau-otoitz.
I Gauald. IV Resp.).

Lagun, erritar ta senide ditugun aingeru auen artean, Mikel Goiaingeruak du lentokia. Berra degu Eleiz osoaren ta errialde askoen ta bereiziki Euskalerrri osoaren Zaindaria. Liturgiak bein baño geiagotan gogoratzen digu Mikelen Burutasun au:

- Zeru-gudarien buru:

"Mikel Goiaingeru Santua, zakizkigu lagun gudan, begira gaitzazu etsai gaizto ta maltzurragandik. Menpera beza Jainkoak eta Zuk, Zeru-gudarien Buru zeran..." (Meza ondoko otoitza).

- Aukeratu guzien Buru:

"Mikel Goiaingeru, zerurako aukeratu guzien Buru egin zaitut". (Bezperatako Birlleloa).

- Buruzagi argitsu:

"Buruzagi argitsu Mikel Goiaingeru, oroi zakizkigu". (II Magn. Birlleloa).

- Turuta jotzaille eta ikurrin eramanle:

"Joan gertaera izkutua ikusten ari zala, Mikel Aingeruak turuta jo zun". (I Magn. Birlleloa).

"Mikelek du Gurutzeta, ikurrin ordez buruan". (bezper. Goratzarre).

- Deabruaren aurka:

"Satan arroaren aurka, guk Mikel Buru dezagun" (Bezper. Goratzarre).

Aingeruak gure eguneroko bizitzaz ain arretatsu badira, arrazoi geiagoz izango dira gure bizitzako gertakizun ederrenetzaz; esaterako: bataio, mez, eriotza t.a.

BATAIOKO AINGERUA:

Ritualeko otoitzak maiz aitatzzen digute "Bataioko Aingerua". Aingeru onek bi egiteko ditu: Bataio-ura gertutu ta kristau-gaia zaindu ta Bataiorako gertutu: "Bial, Jauna, zure Aingeru Santua gizonak garbitu ta berpiztuko ditun ur onen gaiñera". (Benedictio aquae baptismalis n.5).

Kristau-gaia bere adiñeko danean, onela dio apaizak: "Bial itzazu, Jauna, zerutik zure Aingeru Santuak zure morroiau gorde ta Bataioko grazira zuzendu dezaten" (Ordo supplendi omissa super

adultum baptazatum n.15).

Elizako Gurasoak ere ta bereziki Tertuliano ta Origenek Bataioko Aingeru onen berri eman digute. (De Baptism.6; In Jos.Hom.IX,4).

MEZA TA AINGERUAK:

Aingeruak mezatan gure ondoan ditugula esatea, Ez da asmakizun bat: beti gure ondoan baditugu, bereziki eguneko ordu ederrenean. Len Belen'go askatxoan abestutako goratzarre bera abeste dute Mezatan ere, gurekin bat egiñik. Batasun orren agerbide bikaiñena, Sagara-aurreko "Sanctus" abestia dugu: "Onengatik goستن zaituzte aingeruak, eta Serapin doatsuek, pozezko biotz batez ospatzen zaitute. Aien gorespenekin gureak ere onartu itzatzu, arren, esanez: Guren, Gure, Guren..."

AINGERUAK ETA ERIOTZA:

Gizonarentzat garrantzi aundiena dun ordua eriotz ordua da; azken ordu ori nola igaro ala izango du geroko bertikotasuna; beraz, nola ez arduratu gutaz Aingeruak ordu ortan? Bitarteko leialak izango ditugu ordu ortan:

- Ondo iltzen lagundu:

"Atera zaitte, anima, mundu ontatik Aingeru ta Goiangeruen izenean, Alki ta Nagusien izenean, Buruzagi ta Agintedunen izenean, Kerubin eta Sepapin'en izenean..." (Ordo Commendationis animae, n. 4).

- Bide-lagun zerurakoan:

"Gorputzetik irrendako zure animari Aingeru-talde ederra bideratu dezaiola" (Ib.)

"Artu beza Mikel Jainkoaren Goiangeru Santua... Bideratu bezaizkio Jainkoaren Aingeruak eta eraman bezate zeruko Jerusalem'era"(Ib.).

- Jainkoari eskeñi:

"Zatozte Jainkoaren Santuak, etorri Jaunaren Aingeruak; ar zazute onen anima ta eskeñi gain-gaiñeko Jainkoari; ar zaitzala deitu zaitun Kristok ta Aingeruak Abraham'en magalera eraman zaitzatela" (De expiratione n.3).

"Ez bitez eori illunbera; aldiz, S.Mikel Aingeruak banderadunak sarrerazi dezala argi santura" (Illen mezako eskeintza).

"Atsegin tokira eraman zaitzatela Aingeruak... Aingeru-taldeak jaso zaitzala, ta alako Lazaro eskalearekin ezazu betiko atsedean" (Exequiarum ordo n. 11).

- Gorputzaren zaindari:

"Bedeinka ezazu illobi au ta jarri iozu zaindaritzat zure Aingeru Santua" (Exequiarum ordo n.12).

* * * * *

Idatzi Deunak maiz aitatzen digute Aingerua; Itun Zarrean, Tobit Idaztiak erakuspen ederrak utzi dizkigu aingeru zaindaritzaz; Itun Berrian berriz, Jesus ta Bidaliek bere ondoan dute beti Aingerua. Baiñan liturgiak oraindik geiago sendotu ditu artu-eman oiek: Idazti Donean Aingerua lagun badudu, Liturgian senide dugu.

A. Bittor

Lazkao'ko Beneditarra

Ikus: C. Vagaggini O.S.B. : "Il Senso Teologico della Liturgia", Roma (1957).

EMIGRAZIOA ETIKAREN ARGIPEAN

Irakurle, lantxo ontan sartu baño len, gure Euskalerrria'ri begiradatzko bat bota dezaiogun. Eta, edestia lagun, begien aurrean jarriko zaizkigu, edonora, Ameriketara bereziki, samaldaka joan zaizkigun euskal-seme jatorrak. Millaka Ameriketara, millaka baita España'ko lurretan barrrena, millaka baita Prantzi-alderdietara ere, millaka noranaira.

Euskoak urruti-miña bere barne-muiñetan biziizan du gizaldiz-gizaldi. Gaur egun ere, joera au garbi ageri zaio. 1936'ko gerratea nai-ko izan zan -bestalde nola ez- 150.000 euskaldun atzerriratzeko (Los Vascos en América, 788 or.). Geroztik ere, apurka-apurka, betiko arian, ba-doaz Prantzi'ra, naiz Ameriketara. Onenbeste joan bear onek ez ote dio Euskalerrria'ri odol-ustu bat ematen? Ona problema bat. Eta, zorionez, problema onek gaur egungo euskaltzaleak zirikatzen ditu.

Bestalde, lena bezin argi agertzen zaigu beste au ere: Euskalerrria kanpotarrez asetzen ari zaigula. Bizkai, gipuzko ta Araba'n jendea pilloan sartu zaigu. Ola ta lantegiak jaso ala, jende berri saillak ezagutu dituzte gura uri ta baserriek. Gaur ez da atertu jendearen etorri bear au; len etzirudin atertuko zanik ere, egun, Bizkai'an beintzat, neurriak artzen asiak dira zorionean. Izan ere, berez, kanpotarrak neurri on bate-

an sartzea onuragarri bada ere, iñungo baldintza ta agiririk eskatzen etzitzalenez, kalte aundiak zekarzkin. Kanpotarrak sartze onek Euskalerrria' ri ba al dakarkio onurarrik? Bai noski. Kalterik? Baita. Bi auek ondo neurtzen jakin bear, erabaki on bat eman nai bada. Or kokka.

Nere idaz-lan onen elburua ez da Euskal-lerri'an daukagun problema ikaragarri oni askabi-dea ematea, ez. Ori geiegitxo uste izatea litzake. Ortarako Etika, Soziologia ta Estadistika asko jakin bear baida; Ta gaiñera, zentsuna iduki. Nere asmoa au da: Bizi dugun problema nagusi au askatzeko, Etikak ematen dizkigun oiñarri sendoenak bederen adieraztea. Oiñarri auek gogoan izaki, gure begiek ikusten dutena, adimenak osokiago, zentzun geiagoz irizpidetu dezan. Izan ere, ba-dirudi, Euskalerrri'ko seme askok, gauza auei axala bakarrik ikusten diegula, eta ontaz mintzatzean itzak ez ditugula ondo neurtzen. Gure iritzi oker oiek zerbait bederen zuzentzeko argi pittin bat eman guz-raz nator. Noan, ba, arira.

* * * * * *

Zer da erraldaira edo emigrazioa? Norberak bere erria utzi ta, itzultzeko asmo edo gabe, beste batera joatea. Au bi eratarata gertatu ditekete.

a) Aukeraz. Emen ez nuke esan nai pozik joan bear duenik, baizik eta nun edo nun bizi-bide ohea artuko duelako edo bere aberria uzteko gogoak eman diolako kanpora doala.

b) Bearturik. Esate baterako, gudan gaziki artuak izan diranak, atzerrira doaz iges; baiña ez beren gogoz, zigorraren bildurrez baizik. Auek bearturik doaz. Era berean, erlijioaren gorrotoz, alderdikeriz edo beste milla griña txarrez jazarriak diranak.

Orain guzieren begiratuaz ariko naiz; eta gero, bukaeran bearturik doazeneri buruz bi itz esango ditut.

* * *

EMIGRATZEKO ESKUBIDEA GIZONAK BEREZKOA DU

Zergatik?

a) Bizitzeko eskubidea daukako. Jainkoak bizitzeko agindua eman zion gizonari. Au da: Bere burua zaindu bearrean jarri zuan. Eta Jainkoak gizonari eginbear au eman zion ezkerro berau bete bear al izateko eskubidea ere eman zion; jakiña, ba, Beraz, bere bizitza zaintzeko bearreko dituanak lortzeko eskubide osoa dauka gizonak, nornai dalarik ere. Mundu ontan, ordea, bizitzeko bide bat bakarrik daukagu: lan egitea. Beraz, lana arkitzeko ta egiteko eskubidea guziok daukagu. Eta norbaitek bere errian arki ez al baleza, atzerrian billatu lezake.

b) Norbera aske dalako. "Gizonak bere buruaren jabe izaki, Jaungoikoak irazatean eman zion elburua, bere aberria, sendia ta etxea utzirik, beste erri ta zerupean arkitzeko eskubidea dauka. Izan ere, bere jaioterriarekin loturik badago ere, lotura auek aska ditzake ta bizitza lagun arte berri batean txertatzeko aimenak beregan ditu". (Malinas'ko Erriarteko Zillegizti Araudiak, 54'gn. zenbakian)].

Beraz, gizonak erriz ta lurrez aldatzeko duen eskubidea argi dago.

Izan ere Jaungoikoak ludia ta bertako gauza guztiak gizonaren serbitzurako egin zituen. Eta Jainkoak, gaur, 2.600.000.000 gizon lurreratu badizkigu, auek guziak bear duten jana ez digu ukatu. Onekin ez dugu esan nai, bazter guzietan bertanbizi diran oroentzako lain izango danik; baik eta, lur zabalean dauzkagun ondasunak, gizonen artean zabaltzen baditugu, guztientzako beste ta geiago dauzkagula. Alderdi eta erri beartsuak utzirik lur eta errialde aberatsetara doazenak, ba, ondo dagite. Ta ala-olako aitzakiak dirala-ta artzailleak ez dezaiekte eragotzi; gizajoak orrela jokatzean beren eskubidean baidaude. Baiña gu-re esateak albo batera utzirik Pio XII'ren itzak entzun ditzagun: "Jainkoak gizon guztientzako irazan zituen ondasunak, zuzenbide ta maitasunaren arauak jarraiki, betoz, era berean, guztiengana".

(Sertum laetitia). 1949'ko Lotazillaren 24'an idatzitako eskutitzean, berriz, onela dio: "Erri-en jabetza begiragarria bada ere, izadiaren irazleak, ondasunak oro batez ere gizon guztien onerako egin zituen ezkerro, beste asko elikatzeko aña lur nunai daukaten erriek, sarrera eske datozen oitura onekoel ez dezalekete ukorik eman; sarrera emate au ondo neurtutako guztien onaren aurka ez badator beintzat".

Oraindaiño esandakoaz, ondorio au ateratzen dugu: norbait lanaren eta janaren atzetik dabillenean, besteok pakean utzi bear diogula.

Jainkoak eta gizadiak ere geiago eskatzen du, ordea. Mundu ontako ondasunak guzion onerako egiñak ditugun ezkerro, sobran daukanak berak eman bear dio ez duenari. Pio XII'ak len aitaturiko "Sertum laetiae" Enziklikan onela dio gutxi gorabera: alegia, erri aberatsak txiroen laguntzera gizarte zuzenbidez beartuak daudela. Gaur egun, zoritxarrez, kristauok ere dotriña onen berri gutxitxo dakigula esango nuke. Eta errien agintariek beren burua arriskuan ikusi bitartean, ez diote kaso aundirik egingo, an inguruan eske ta eske, intzirika daukaten Afrika, edo Amerika edo nunaiko erri beartsuari.

Orain, ba, gizonak erraldatzeko duan eskubidea argi agertzen zaigu. Eta erriarteko eskubidezgoaren (Derecho Internacional) fundatzaille dugun Aita Vitoria euskal- seme argiaren itzetan onela esango dugu: "Lurrik gabeko gizonak, gizonik gabeko lurren jabetzarako eskubidea daukate";

*** *** ***

ONURAK

Mundu ontan gizon bakoitzak ba-ditu bere doai ta koalidadeak. Alegia, bere ondasunetaz gaiñera ba-ditu bere gogozko aberastan bereziak. Eta gizon batek dituen bezala baita erri bakoitzak ere. Ez, ordea, aberastan guztiak. Jainkoak ez baidu nai izan. Guztiori eman digu, ordea, bata edo besteagan arkitzen diran aberastan ikusi al izatea, ta baita gureganatu al izateko indarra ta naimena.

Zibilizazioaren aurrerapenerako, bata besteen ondasunen eta aberastasunen zabaltze au, artu-eman au bearrezkoa da. Aberastasunen artu-eman au oredea, eziniezkoa da, gizonok geure artean, artu-emanetan ez bagabiltz; munduko lurraldeek, bertan bizi geranontzat, ateak irikitzen ez badizkigute. Lu zabaleko erriek ateak zabaltzen badituzte, berriz, "Sendiek berentzako bene-benetan aberria izango duten, eta bearrezko zuten, lur zatia artu al izango dute; biztanlez aserik zeuden eskualdeek arindu egingo dira, ta gaiñera, erriek adiskide pilloak irabaziko dituzte atzerrietan. Artzailleek, berriz, gizon langilleak berenganatuko dituzte. Era ontan, ba, eman dituzten erriek eta artzen dituztenek gizadiaren onerako ta kultura biderako lan ederra egingo dute"(Pio XII'ak, 1941'ko VI'aren 1'an egindako itzaldian).

Jakiña, erabateko ate zabaltzea, neurririk gabekoa, alegia, kaltegarri litzake. Gizonok geure aberastasun eta doaietaz gaiñera, geure akatsak ere ba-dauzkagu-ta. Neurri auek zeintzuk eta nolakoak izan bear duten jakiteko errien eskubideak aztertuko ditugu.

*** *** ***

A) JATORRIZKO ERRIAREN ESKUBIDEAK:

Len e-san dugunez, gizona bere buruaren jabe da ta berak nai duen tokian jarri dezake bere bizilekua. Bestalde, bere burua zaintzeko agindua ta eskubidea dauka. Beraz, jatorrizko erriak erraldaira, erigrazioa, ez dezake erabat galerazi.

Ala ta guziz ere, Latorria (Estado) -gizona bezelaxe- bere burua zaintzera bearturik dago; eta erraldaira dala-ta, gerta diteke, erri-tar geiegi ateratzea, Latorria odol-ustutzea. Au, bezak bear dituen langilleak, teknikoak, t.a. ir-ten zaizkiolako gertatu dakioke. Orrelako gaitzik izan ez dezan, ba, bearrezko neurriak artu ditzake. Izan ere, gauza auetan guztien onari begira bear zaio lendabizi; eta kanpora doazenena baiño Latorri osoaren bearra nagusiagoa danez, aiek onen e-rara jarri bear dute. Latorriak, bada, kanpora doazeneri baldintza batzuk jarri dezaizkieke. Esate

baterako, gudaritza betetzea, zergak ordaintzea, t.a. Aberria odol-ustutzeko zorian badago, berriz, oraindik neurri gogorragoak artu ditzake.

Jatorrizko Laterriaren eskuetan dago baita erraldaleen zaintzea. Ontarako, ordea, gauza ondo joan dedin, erraldaleek dijoazten erriko agintariek bat etortzea premiazkoa da. Erraldaleek ia beti zaintza onen bear gorrian arkitzen dira. Izan ere, beaiek dijoazen bazterretako oitura, bizibide, gizarte ta lan-lege, bizigiro, erlijiotasun ta abarren berririk ez dutenez, bizikera berri ontan moldatzen, zertzen irakatsi ta lagunduko dienik arkitzen ez badute, beren burua estututa etsitzeko zorian jartzen dira. Gaur egun, jende asko iñoren laguntzarik gabe-edo dabil. Onela dabiltzanak, zoritxarrez, neke, buru-auste ta konpleju ikaragarriak igaro bearrean arkitzen dira, alik eta bizitza eratu bitarteko urteetan. Askotxok, berriz, etorkizunik arkitzen ez dutelarik, etsi ta beren burua galtzen dute. Erraldaleak, ba, bere burua galdu ez dezan len pausuk ematen lagunduko dion norbait bear du. Eta norbait au aberkide badu, erraldaleak arengan i-piñiko du bere itxaropena laister asko. Bere problemak gizon oni azaltzea errez egingo zaio.

Ageri danez, emigrazioa zuzentzen duten bazkun eta gizonen erraldaleen aberkide izatea komeni da, auen sikolojiarekin ondo datozenak bakarrik egin baidezakete ain premiazko dan lan eder ori. Gaiñera, berez, jatorrizko Laterriak ontarako eskubidea dauka, len ere esan dugunez. Zergatik ordea? Erraldaleek oraindik erritasuna galdu ez dutelako. Jatorrizko erritasuna gordetzen dutenez, bada, ta erri bateko agintariak erri guztiaren onerako jarriak daudenez, erraldaleek zaintzeko eskubidea ezezik egin-bearra ere daukate. Beraz, jatorrizko Laterriak zaindu ditzake, ta areago, zaindu egin bear ditu.

Bestalde, xede dan Laterriarekin (Estado de destino) baturik, erraldaleeri lana, bizibidea emateko alegiñak egin bear ditu. Bi Laterrien eskuetan dago ortarako bear duten kapitala arkitzea, lantegiak jasotzea, t.a. Xede dan erriak, landu gabeko lurrak biztanle berrientzat eratu bear ditu. Ontan Italia ta Argentina'k egin

dutena eredu ederra da. Izan ere, erraldaleen arazo ikaragarri au ondo eratu bear bada, bi Laterriek elkartzea naitaetzkoa da. Bestela alperrik ibiliko dira; batek egiña ondo egongo da, baiña besteak laguntzen ez badio, problema onek ez du era bateko askabiderik.

B) XEDE ERRIAREN ESKUBIDEAK

Onek ere, berez, erraldaleen sarrera ez dezake erabat debekatu. Askotan, kanpotarren sartzea dala-ta, alderdi beltza bakarrik ikusi nai izaten da, edo nai ez bada ere, olaxe gertatzen da. Kanpotarrak, bertako lu eta aberastasunen apotxazaille, ta txakur amorratuak bezain jale bailiran artzen dira. Bertako aberastasunen apotxazaille dirala? Bai, egia, ta zorionean. Erri bateko aberastasunek bi elburu baidituzte: ango biztanleen bizibide ta bearrak osatzea, eta gizadi guztiaren onari begiratzea.

Beraz, erraldaleeri eskerrak, aberastason oiek beren elburura iristen dira. Gaiñera, leen, aberastason oiek iñork erabiltzen etzituelarik etzuten etekiñik ematen. Kanpotarrak sartzean, berriz, auek lan ta nekeen bidez Laterriarentzat etekiña ba-dute.

Ala ta guztiz ere, jatorrizko Laterriak bezelaxe, xede Laterriak ere, ba-du neurriak artzeko eskubidea. Auek artzean, ordea, gizarte lege guztien oiñarri izan bear luken "gizadiaren ona" gogoan euki bear du. Laterriak bere burua zaindu bear duanez, argi-argi kaltetan datorkion erraldaira ez dezake onartu. Esate baterako, kanpotar asko datorkiola-ta ba-diteke erritasuna, bertakoen lanbidea, osasuna, oiturak, t.a. arriskuan jartzea. Ba auek guztiak zaintzeko kanpotarren sarrera gutxitzeko neurriak artu ditzake, beste biderik ez bada-go, ta gizadiaren premia aundia-go ez bada.

Martín Brugarola'k 1957'ko "Fomento Social"-en Jorrail-Garagarri zenbakiko 152-153 or. onela dio: "Inmigrazioaren kontrola bearra guzion begien aurrean dagon gauza da. Ta kontrol au, sartzailleen zenbatezkoari ta nolakoazkoari (número y calidad) begiraturik egin bear da. Laterriak bere

azikeran, biztanleen ugalkeran alako arrazoi bide bat jarri bear baidu; bere izakera, politika bidea, abenda, izkuntza, gizarte egitura (estructura), t.a. kanpotarren erasoetatik babestu ditzan".

Izan ere, adibidez, gertatu diteke, Laterri batek 200.000 kanpotar artu al izatea; baiña jo dezagun, orain sartzen ari diran kanpotarrak izakera ta abendaz erabat berezi dirala, ta bertakoekin antola biderik ez dagola. Ba, mota ontako 200.000 artzen baditu bere burua arriskua jarriko du. Beraz, kontrol baten bearrean da. Abenda ezberdiñekoen batzeak gizartera gaitz aundiak ekartzen ditu -erabat bereiziak badira beintzat- ta askotan, gaitz auek aitutzen naiz neurriak artzean, geiegira jotzen bada ere, neurri auek erabat gaizki artuak daudenik ez dago esaterik. Ori ba, gaur egun, toki askotan, erraldaleeri ateaq geiegi isten zaizkie, ta Brugarola'k dion bezala: "Erraldaira-mugimentuaren neurribide bat artzea bidezkoa da; ez, ordea, ateaq erabat istea".

Kanpotarrak onartu dituen Laterriak zazpi alegiñak egin bear ditu, aiek bertakoekin ondo etorri ditezen. Lagun artean bizitzeak ez baidakar onurarik alkarren arteko artu-emanak kristauki, gizonki eramaten ez badira. Bestalde, onartu dituen ezkeru, apurka ta neurriz, baiña erabat bereganatzeko, bertako biurtzen lan egiteko, au da, asimilatzeo eskubidea dauka. Ontaraku bein betiko joan diranak, edo an jaio diranak beintzat, bertako erritasuna artzera beartu ditzake; eta benazko ta erabateko leialtasuna ere eskatu dezaieke.

Esan dugunez, asimilatze onek apurka etorri bear du, ez bapatean, jakiña. Ferris jaunak onela dio: "Erraldalea, sartzen dan erriko kultura ta gizartean bat biurtzera jo bear dugu. Baiña ez laisterregi; kultura berria sartzeko, zorra indarrez atera gabe, alegia" (Ecclesia, 1954, 598 or.).

* * *

ERRALDATUAREN ESKUBIDEAK

Erraldatua beste edonor bezelaxe gizona da, ta gizonari dagozkion

eskubideak, len bere aberrian zegoanean bezin osorik dauzka atzerriratu danean ere. Beraz, bere abenda, erlijioa, politika iritzia, jatorria dirala-ta, xede Laterriak ez dezake bertakoek baiño beeragoko maillan jarri. Au da, gizarte legeetan, sari-legeetan, elkargo edo sindikatoak aukeratzeko eskubideetan bertako jendea bezelaxe erabilli bear du. Alegia, erraldatua gizarte berri baten erdikide eginda erabat. Eta beltzak eta beltzak eta zuriak eskubide ezberdiñik ez duten bezela, ez eta erraldatu eta bertakoak ere. Onezaz gaiñera, bere sendiaren batasunari, bere kulturari, erlijioari eutsi dezaieke; ta bere izkuntza askatasun guztiz erabiltzeko eskubidea dauka.

Bestalde, ordea, eskubide auek bere eginbearren oiñarri dirala jakin beza, ta bere altzoan onartu duen erriarekin zorretan dagola.

EMIGRAZIOA BEARTU DANEAN

Azkenez, erraldaira mota onetaz bi itz besterik ez, gertatzen diran zertzelada berezien argibidetzat. Erraldaira, guda ta nolanaiko jazarriak eragiña danean, iges dijoazenen premiak gorriagoak izaten dira. Izan ere, iges bizian dijoaz, ta artu al izan duten utsa bakarrik daramatela, laister dira esku utsetan, Gaiñera, samaldan ta ustekabeen doazenez, artzen dituzten erriek ez dute guziari lanbidea emateko erarik, ez ta gutxiagorik ere.


Zorionez, geienetan beintzat, olakoak ondo artuak dira beste Laterrietan; baldintza bat besterik ez baizaie eskatzen. Ona zein: ematen zaien babesa igeska datozen erri edo errejimenaren aurka jasotzeko ez aprotxatzea. Noizbait ere, gizonok biotza ba-dugula adierazi bear genuen.

Jazarpena dala-ta igeska dijoazanak gutxi badira, aueri bizi-bidea ematea xede Laterriarentzat neke aundia ez denez, onek jatorrizko Laterriaren zeregiñetan ez dezake eskurik sartu. Baiña, igesiak gizatalde aundiak badira, ta auek zaindu ta bizibidean alboko erriarentzat, edo errientzat eziñezko gauza bada, erri auen eta mundu guziaren zigorra ondo merezia dauka. Au da, errejimenaren edo agintarien jokabidea leundu le-

zaketen bidezko neurriak artu ditzakete.

Erraldaleen bizibidea alik eta osatuen dedin. berriz, erriarteko agintariek beren zaipen artu bear dituzte, bestela beraiek eta artu dituzten erriek neke larritan arkituko baidira. Bestalde, erraldaleek leialki ta zintzoki jokatu bear dute artu dituzten erriekin.

Otaegi'tar Jon B.
Villaro'ko Sakramentinoa



KRISTAU

FILOSOFIA

Zer ote da kristau filosofia? Goiargiaren laguntza bearrezkoa bezela artzen dun filosofia.

Gizona pentsatzen asten danean, lenengo bere biziko galdera nagusienak egin bear dizkio bere buruari.

Len ez nintzan. Orain ba-naiz. Nundik nator? Nora nijoa?

Gizonak zertarako bizi dan eta bere azkena zein dun jakin bear du.

Eta zer da filosofia?

Gizonak bere ezagueraz "egia" billatzeko egiten ditun egiñalak.

Goiargiaren laguntzarik gabe ezagutu ote dezake gizonak Jaungoikoa, adimenaren indar utsez? Ori ez dezakegu ukatu, katoliko iraun nai badugu. Alare berealaxe ikusten dugu, naiz antxiñako, naiz gaurko filosofoen artean, iñork ez digula Jaungoikoaren berri zuzen eman Goiargiaren laguntzarik gabe. Okerbidetik joan izan dira eta illunpetan dabilta itxuak bezela. Gezurra prancko esan eta zabaldu digute sinisgabeko filosofoek. Egi-zati gutxi eman dizkigute. Zergatik gertatzen da ori? Gizona bere adimenaren indar utsez Jaungoikoaren eta bere azkenaren berri jakiteko gauza ba-dana sinisten ez dugu ba? Ala-ta guztiz ere, istoriaren erantzuna auxe duzu: Goiagerkundetik urrun, danak okerbidetik jo dutela.

Egi osoa guk bakarrik dugu. Goiagerkundearen laguntza eta argia bearreko dugu gizonaren

azkena eta lorkizuna zein dan jakiteko.

Filosofia beste jakintzeetarako bide bat besterik ez da, eta or bertan gelditu nai dunak, illunpetan ereriko da, dio Bonabentura Santuak.

Goiargia "egiaren irizpidetzat" (criterium veritatis) ez dezakegu artu. Bai ordea, egiaren iturri bezela, gure bizitzarako batez ere. Bestela gizonak beti illunpetan lirake.

Protestanteentzat teoloji utsa litzake gizonak bere adimenez siñismenak lagunduta iritxi dezaken jakitea. Gizonaren ezaguera ezta ezertarako gauza bere aldetik. Jaun^{ak} nai dun arte itxoin bearra dauka. Itxaropen osoaz Jaungoikoaren besotan amildu bear du lagun dakion.

Razionalistek, berriz, aurretik -a priori- goiargia erabat ukatuko dizute. Jaungoikoak ezti^o iñori itz egiten. Are ta gutxiago bera gizonekin. Gure arrazoiak eztu beste munduko berri jakiteko biderik. Arrazoi utsa da jakiteko guzien neurri. Siñistu nai dunak siñistu beza, baiña berak sortu ditu fedearen oiñarriak, berak asmatutakoa siñisten ariko da. Kristo zuek, kristauok, egin dezute Jaungoiko. Razionalistek ezti zu beiñere lurretik zerura-arteraiñoko saltorik emango. Beti lurrean geldituko zaizu. Bere arrazoiak ez baitio "beste aldeko" berririk ematen. Emen dago fedearen misterioa.

Baiña protestantek mutur batera eta razionalistak bestera jotzen badute, guk beiñe-pein erdiko bidetik jo bear genduke bat egiñik. Baiña ezta orrela gertatzen.

Katolikuen artean asko dira kristau filosofia ukatzen dutenak. Ez omen du esankizun zuzenik aientzat. Filosofia berez omen da gure adimenaren frutu. Une berean nola izan ote diteke goiargiz sortua? Ortaka ez litzake gure arrazoiaren lorkizun utsa. Beraz, oentzako eztago kristau filosofirik.

Beste batzuk kristau filosofia ba-dala diote, istoriak agertzen dugunez. Orixe litzake San Agustin eta Aro-Erdiko eskolastikakoena, esate baterako. Filosofi ori, ordea, benetakoa izatekotan, bere demostrazioak, agerbideak, arrazoikoak dituna izan bear, eta Goiargiaren eraginindarra (influxua) azalekoa bakarrik. Goiaria nun da-

gon erakutsi bakarrik eta oker bidetik zaindu: orixe da teolojiaren eginbearra gizona bere aldetik pentsatzen ari dan bitartean.

Azkenik, beste batzuk, Goiargiaren eragiña eztala azalekoa bakarrik diote. Muiñekoa, positiboa omen da, Goiagerkundearen laguntza.

Gizona zerurako egiña dagola diote. Gure adimen-naimenak Mugarikgabekoa ezagutzeko "kemenetan" (in potentia) daude, eta gizonak oekintxe egiten du bere filosofia. Beraz, gizona goiko izadirako egiña bada, ez dezakegu "izadi soilgarrian" (natura pura) lotu: gauzak duten realidadea, azkena ezagutu gabe, ezagutzea litzake ori, eta ori ezin ditekena da, metafisikak dionez. Azken kausa, kausa guzien buru baita eta filosofiaren eginkizuna gauzak beren azken kausen bidez ezagutzea da.

Gizonaren azkenak zeresan aundia dauka bere filosofian, goiko izadirako eginda baitago. Eta ori Goiagerkundearen bidez lortu dezakegu egiz eta seguru.

Kristau filofia da gizonaren egiazko filosofi osatua.

Kristau filosofia eztugu teolojiarekin naastu bear. Onengandik metodo eta objetoaz bereizten da. Arrazoi bidez sortzen da, fedetik ez. Izadiko kizunari (objetoari) buruz ari da eta ez goiko izadikoaz. Ala ere estuki alkartzen dira biok, kizun berdiña baitute. Filosofia adimenetikoa danezkero, izadiko kizunari buruz ari da; baiña teolojiagana dijoa, berau baitu bere lorkizun eta osakizun.

Beraz, errez bereizten dugu filosofia teolojiagandik; onengandik ez dezakegu, ordea, erabat banatu. Bere lorkizuna ez baida izadi soillekkoa, goiko izadira dijoana baizik. Ori argi dago batez ere Jaungoikoari eta gizonari buruz ari generala. Filosofia, bere mugetan da egiazko eta bere eskuko, alegia, bere baitan gelditzen ez dan bitartean. Beeko izadia goiko izaditik erabat moztu eta arengandik urruntzen eztan bitartean izango da benetako filosofia. Auxe da San Bonabenturaren iritxia. Onelaxe erabili zuten beren filosofia San Agustin eta beste kristau filosofo askok.

Goiargitik etzuten alden du nai izan. Santo Tomas'ek, ordea, Aristotele'en eragiñez gizona soilgarrian anturik, filosofia teolojiatik zearo bakandu zigun, "teorice" beñepein, naiz-ta bere erakuspenak Goiargiaren influxu positibuz eman bazizkigun ere. Ala ere Santo Tomas'gan ez dugu "izadiaren autonomia" Aristotele'gan.

San Agustiñek eta San Buenabenturak-eta, oiek ez omen dute filosofirik. Oien filosofia teoloji utsa omen da.

Santo Tomasena, berriz, orrena bai, fillofi garbia omen da. Onek ondo bakandu omen zun filosofia teolojiatik, bakoitzari bere eskubideak emanez.

Baiña jakiña da, eskolastikako pentsalariak teolojiaren mendean filosofia ipiñi zuten. Teolojian arrazoibideez ibiltzeko filosofia neskame bezela artu zuten.

Gizon aiek santuak izan ziran gero. Egunero eta ia unero eskatzen zioten Goiarnasari: "Zatoz Espiritu Santu ori, bete itzatzu zure zintzoen biotzak eta piztu aietan zure maite-sua".

Goiargiak laguntzen zien etengabe pentsalari bikain aiei beren bururakizun sakon eta ederrak asmatu eta mamitzen.

Gero nola esan dezakegu arrazoibide utsez lortu zutela beren filosofiko jakite osoa? Eguneroko Meza, Breviarioko otoitzak, (Bonabenturak Ebanjelioa buruz omen zekian), egunero ordu beteko otoitzaldia, eta gero ia unero Goiargiari eske ta eske ari danak jasoko ez du, ba, zeruko laguntza eraginkorra, positiboa bere bizitzarako. Itz batean esateko: benetako fede-bizia bizi duna, pentsatzen ari danean ez ote du bere siñis-menaren laguntzarik? Bai noski. Alare, arrazoibidez ari da pentsaketan, filosofi-gaiak aztarrika ta mamitzen.

Izan ere graziak, gaixorik zegon arrazoiak sendatu egin digu. Berez goiko izadirako gauza etzana, altsu egin du Goieskerrak.

Kristau morala ba-dugu. Eta morala bera ere filosofiko zati bat duzu. Zergatik deitzen diogu kristau-morala? Orrek aiñako eskubiderik ez ote du Goiargiaz sortu dan filosofiak? Berdin gertatzen da jakinduri itzari buruz. Kristau-jakindu-

ria ba-dugu. zergatik ez dugu onartu bear kristau filosofia?

Iru egi:

1.- Kristau filosofia ba-da, bai istoriaz (izatez) eta bai eskubidez (de iure), rebelazioaren laguntza positibu ta negatibuz.

2.- Kristau filosofia bakar-bakarrik da filosofi osatua, gizona izadi utserako ez-baiña goiko izadirako egiña balin bada.

3.- Alare, ondo berezitu bear dugu filosofia teolojiatik, "kizun" (objeto) ta "auraubide" (método) aldetik. Baiñaez ditugu erabat bakandu bear. Gizonaren izakeran bere izadia goiko izaditik garbi berezitzen dugu. Ez dago zearo bakantzerik, ordea. Gizona gauza bakarra baita bere azkenarekin, zerurako sortua alegia.


Teolojiak bere siñisgaiak arrazoibidez probatzen alegiñak egiten ditu. Filosofiak, berriz, ez du siñisgairik onartzen. Arrazoiak asmatutakoa, berak ikusitakoa probatzen alegintzen da.

Gizonaren azkena goiko izadirakoa dana agerbidetu (demostratu) ezkerro, egi auek argi ta zuzen agerbidetuak gelditzen dira, aurretik emandako arrazoiien bidez.

Azurmendi'tar Juan

Arantzazu'n teologari

**KULTURA
JAKINTZA
ANTZE**



ASTRONOMIKA DALA-TA...

Emen natorkizue irakurleak, ain nabarmen agertzen zaigun mugimendu edo igitu ontaz, gure YAKIN aldizkarian zerbait idazteko asmotan.

1957'ko Urrillaren 4'an, errusoak beren lelengo illargikumea zerura bidali zuten eguna da. Jakitun guztientzako egunik aundienetakoa izan zan noski. Bere eskuz zenbat egin dezaken erakutsi baizun gizonak; eta goiko mundu zoragarri ortaz jabetzeko bearrezko zun len pausoa eman. Onela uste izan du mundu guztiak, Ipar Amerikar periodista batek, gertakizun auek dirala-ta, bere egunerokoan jakin erazi digunez. Eta ala da izan ere; iñoiz gizon zentzudunak illargiko joan-etorrietan amets egin bazezaken, orain egin dezake, gerokoa argiago ikusten baidu. Ala ta guztiz ere, ogeigarren mendeko bigarren aldi ontan ez dugu konfiantza osorik, ez eguneko teknikaren aurrerapenetan, are gutxiago, jakintsu askoen uste onean. Beren asmo ori aurrera eramatekotan aurrez-aurre jarriko zaizkien oztopo ta korapilloak garaitu ditezkenak, askatu errexak izan al dituzte? Ustegabeko zenbait gertakizun arrigarri entzuten ditugu, egin ere egingo dira. Esate baterako Si-

mons kapitanak 33 kilometroko gaindegietan 30 ordu globo batean igaro omen ditu. Baiña dana dala, amets utsa dirudien ibillaldietan ez gaude ain errex siñisteko.

Bestalde, gizonak bere kabi goxo ontatik ateratzea betidanik irritatua izan du. Antziñako grezitarren artean agertzen da lenengo aldiz gizonaren asmo ori; beren mitologian azaltzen diran Dedalo ta Ikaro izenak, ori darakuskigute. Edozein garaietako literaturan ere azaltzen da. Ameslari sonatuak, izarretako ibillaldietaz ele ederrez apaindutako orrialde zoragarriak idatzi dituzte. Adibidez, Jules Verne'k, ain entzuna dan "Lurretik illargira" liburu bikaiñean. Garai artan gure oiñazpiko lur maitea txikiagi iruditzen bazitzaien, gaur zer esanik ez, gizadi ugaritua, gizonaren teknikak goiko maillatara jaso eta mundu guzia erabat aldatuta ikusten dugun egun auetan. Ez da arritzeko, ba, lortu duan aurrerapenarekin bere txokotik ateratzeko asmoetan ibiltzea. Teleskopioaren edo beste tramankulu berezien bidez goiko baztarrak aztertzea gaurko jakintsuari gutxitxo iruditzen zaio; an bertatik aztertzea, ikustea nai du. Ori dala-ta, sortu dira koete ta illargikumeak bialtzeak, illargiko ta izarretako ibillaldiak t.a....

Sistema berri oni sortu berria dan "Astronautika" izenakin deitu diote. Euskeratzean "izarritzi" erabili du norbaitek.

Elkargo askoen artean astronautika so-roan lan geiena egin duana egiazko lanean, bai zabaltze edo propaganda kontuan, "Erri-arteko Elkargoa" deritzaiona duzu. Bere eginbearrik nagusia, batzarrak eratzea izan oi da. Orain-arte eratu dituztenak zortzi dira: Paris'en (1950), London'en (1951), Sttugart'en (1952), Zurich'en (1953), Insbruck'en (1954), Copenhagen'en (1955), Erroma'n (1956). Azkeneko aldiz amabost errietako jakintsuak 1957'ko Urrillaren zazpian, Barcelona'n batu ziran. Ugari eta jakingarri izanziran batzar ontan adierazi zituzten gaiak. Zertaz jardun izan zuten? Amets kontu denak baztartuta, jakintzaren arloan sartu ziran batez ere, oraingoz gizonak egin ditzazkenetan. Ortarako ametszkoari ate bat itxi zitzaion, eta egin litezkeneri bideak iriki.

Astronautikaren geroari begiraturik, Catalunya' ko uri nagusiko batzarrean artu zituzten asmoak auek dituzue: seitu dezatela oraingoz sateliteak, illargikumeak alegia, al diran osatuenak zerurat bidaltzen. Ondoren, koete edo su-egazkiak illargira bidalduko dituzte, an goien lurretik ikusteko moduan argi egin dezaten. Illargiaren inguruz inguru ibilliko diran izarrontzi edo astronabeak ere bidalduko dituzte. Ango alderdi ezezagunak erretratu ditzaten. Eta gero ustegabeko arrigarrien bat antolatuko dute, beste izarrontzi bat gizon eta guzti. Beraz, urte gutxi barru illargiaz jabetzeko prest gaituzu; baiña, bada ezpada ere, ez aurreratu egunik.

Mugumendu onei eskeiñi zaijon laguntzaz itz bi esan ditzagun. Zein erri izan dira laguntzik aundienak prestatu dizkiotenak? Lenik Prantzia aipatuko dugu; bera izan baida indar geiago ematearren "astronautika elkargoa" eratu eta elkargo onen bidez urtearen azkenean lanik bikaiñenak saritzen dituana. Bigarren Alemania V-2 su-egazkiaren sorterrria. Eta irugarren beste aundien aurretik, Errusia. Jakitunen artean betiko amets au aurrera eramateko lanik geien egin duana Werner von Braun jakintsua duzu dudik gabe. Berak asmatu zuan Hitler'en esanari jarraituz, azken gudatean izkillu bildurgarri eta gaurko illargikumeen oiñarri dan V-2 su-egazki arrigarria. Gizon trebe eta kementsu au Ipar Amerika'n arkitzen da orain, astronautikaren alde zazpi alegiñak e-giten. Aipatuenetarikoak dituzu auek ere: Aberth, Walter Hofman (jemandarrak), Robert Esnault-Pelteric (prantzitarra) eta Ziolkovski (errusitarra).

Ta noiz egingo dala uste dute illargiko joan-etorria? Arestian aitaturako Pelteric jakintsuak, egin dana ikusita, oraindik urruti dagola esaten du. Beste batzuk berriz, 1980'garren urterako gizona illargian izango da erantzuten dute. Ta irugarrenak, gizaldi onen azken aldera jartzen dute egun gogangarri ori. Baiñan jakintsu guztiak lan zailla, lan gaitza ikusten dutela aurrean diote, amaika buru-auste pasa bearrean dirala. Usmatu dituzten nekeak bitan berezi ditzazkegu; lenengo gizonekin naiz gizonik gabe, bialtzen dituzten izarrontziak, ezeren arriskurik gabe lurrera i-

tzultzea. Ortarako kontu euki bearra izango dute abiadura aundiegiekin, tramankulu edo izarrontzia desegin baiditeke. Orobat izarrontzia lurreratzean, ainbeste arrisku ikaragarriagoak igarota on-tzi gizonak azken orduan, il-zorian, arki ez di- tezen.

Asieran su-egazkiaren erregaia, erregai kimikoa izango da, ta ez atomikoa. Au ez baida oraindik ondo ezagutzen; gaiñera, kaltebide aun- dikoa da. Joan-etorria denpora erdian egitea al- perrikakoa izango litzake, erradiazio atomikoa dala-ta, izarrontziko gizonak iltzeko arriskuan balira. Bigarren motako nekeak ugariagoak eta zaillagoak ere ematen dute. Izarrontzitan joango diran personak dirala-ta sortzen dira geienak: giroaren problema, arnas artzeko aizerik eza, grabetade edo ondokoitasunik ez izatea, eguratsa- rekin elkarjoak ta ezagutzen ez ditugun amaika orrelako. Orrelako argibide edo proba gogorak pasata ondoren au ateratzen da: milla gizonetik larogei eta amabost balio ez dutenak dirala. Ar- nas artzeko azterketak, odolaren zapaldiak eta odolak daukan osijenoaren azterketak bakarrrik, millatik zortzirean gizon baztartzen dituzte. Gai- ñera, ogeita zortzi urtetik ogeta amabost urterar- koak izan bear dute, eta injenieri, izarriti, sendakintza eta itxasgintzan maixu diranak. Ikus- ten danez korapillo gaiztoak askatu bearrean ar- kitzen dira jakintsuak.

Erriarteko geofisiko urtea 1957'ko Uz- taillean asi zan, eta urte onen azkeneraiño iraun- go du; emezortzi illabetek osatzen dute urtea. E- ginkizunik arrigarrienak burutzekotan, jakintza arloan zebiltzan guztiak bat egin dute.

Beren egin gogoa, aztertu nai dituzten puntuak izendatu ditzagun: Eguratseko gertakizu- nak, ortze-argiaren azterketa, aidearen argitasu- na, lur-erakartasuna, ionosfera, kosmo-izpiak, zabal-luzeroko aldaketak, eguzkiaren egintza, lu- dikariztia (sismologia), itxas-elestia (oceanog- rafia). Guztira, 100.000.000 libra sterling gas- tatuko dira; eta berrogeita hamar errialdek egite ontan esku artzen dute. Urte onvako ikusgarriena, goiko alderdien azterketa izango, noski. Aurrera- pen aundiak egingo lirake astronautikan, urte on-

tan len aitaturako nekean arindu, bide illunak argituko balira. Auxen da urte ontako arazorik garrantzitsuena. Lenengo motako nekeak gaindu xamarrak dituzte, irakurri dugunez. Ta bigarrena ere ez dijoaz ain motel. Ipar Amerika'tako Aide-indarrak programa jakingarri bat eratu dute urte onen azkenerako: Bi egun lurraren jira-biran ibilliko dan illargikumea gizonekin irureun kilometroko gaindegietara bidaltzea. Ori ondo irtengo balitz, beste pauso aundienetakoa astronautika so-roan amngo litzake.

Askotan irakurri edo egin oi dugu galdera au: illargira joango diranak jaio ote dira? Azkenaldiko ustegabeko gertakizunak eta goian aipaturako Pelteric'ek "gertatzen diranakin oraingo gizaldia aurreneko izarretako joan-etorrietan izango dalakoan nago" esandakoan mugirazita, "illargira joango diranak jaio dira" esaten dute batzuk. Gertatu ditekena da, baiña orrela izateko oraindik zer-egin aundia dago. Zenbat landu gabeko soro zabal, zenbat billagabeko bide izkutu arkitzen diran. Askok orrelako kontuetzaz belarriak aspertuta dituztela esan oi dute. Berriketa ontzi batzuk besterik ez dirala orrelako berriak zabalitzen dituzten oiek. Begira zer dion "Aster Astronautica" deritzaion elkargoaren lendakari dan Sancho Pedro jaunak: Gezurra dirudi egin diran aurrerapenekin ain argi azaltzen zaigun astronautika mugimendu au amets bat besterik ez dala uste izatea. Oiek, egan dabiltzan platilloetan edo Marte'tik eta beste izarretatik datozen oietan sinistuko dute; baiña benetako izarritzi egite auztaz ez dute ezer jakin nai. Jakin dezatela ez dala ameslari ta nobelarien kontua; jakintza guztia, teknika ta ingenieria baizik, jakintsu aundienak buru izanik. Gure kementasun ta adorea buru gabeko gaztediaren ondorea dala uste dute batzuk. Egia esan, lan auetan ari diran asko, urtetan sartu xamarrak dira. Gisa ontako zozokeri ta txorakeriekin aski dugu.

Azkenik, au dasaizut irakurle, esandako guztia, urtetik urtera alda ditekela. Eginkizun ontan ari diranak asko baidira. Zer-edo-zer billatu dutela-ta, len izandako usteak lurrera datoz; bide berrien bat topatu dutelako, edo zalantzak argitu dirakako.

Saizar'tar Fernando Ank.
Villaro'ko Sakramentinoa.

BIZITZAREN AGERPENAK



NORBERAREN ESISTENTZIA

Bigarren jaiotza deitu izan zaio bizar-aroari; egoki esana. Izan ere, denpora ontan arkitzen du gazteak bere "Ni" ezkutua, au da, bere esistentziaren esistentzia. Eta arkitu esaten dut, deskubrimendu izugarria izaten dalako gaztearentza bera ere norbait dala jakitea. Eta deskubrimendu onen ondore bezela, auxe datorkio gero: gizarterako zaletasuna, gizartean atal bat izateko gogoia.

Aita Gemelli'ri jarraituz, periodo bakoitza manifestaziñotan bereiztuko dut. Gemelli'k, berak, ez ditu bereizten periodoak agerralditan, baiña nik bereiztuko ditut ondo bereiztu ditezkelako eta argiago esan ditzadan gauzak. Eta beste oar bat oraindik: ni Gemelli baiño aurreragotik asiko naiz azterketa egiten. Lan onek berez bizar-arotik asi bear zukean; baiña osotuago izan dedin lenengo unetik asiko dut.

LENENGO AGERRALDIA.

Aurra irugarren edo laugarren illetik baitaratzen da bere esistentziaz. Binbitartean ez du aztarnik ematen. Bear

bada lenagotik ere konturatuko da, baiña jakintsuak ezetz uste dute. Ain zuzen ere, lenengo aztarren edo zentzuen bidez umeagan somatzen dugun baitaratzea txit elementala da, afektozko konturatzea alegia, ta afektoa da lenengo esnatzen dan zentzua. Eta nola allatzen da aurra konturatze ontara? Bi jokabide dauzka umeak oiñarritzat bere bizitzaz konturatzeko, onatx: lenengo kanpoko zentzuak, beragandik kanpo dan munduaren izatena edo esistentzia ematen dioten zentzuak eta bigarren bere barruko zirrikak, bere bizitzaren esistentzia erakusten lan dagiten estimuluak.

BIGARREN AGERRALDIA

Bitik sei urtearte. Aurrak, bere burua esamiñatzen du denpora ontan. Bere eskuak, oiñak eta abat, bere gorpuzkiak zeatz aztertzen ditu ta ondore au ateratzen du: bere gorputza ta kanpoko gauzak bestelakoak, diferenteak, dirala. Oiñez ibiltzen ikasi baiño leenago, eskutan artzen ditun gauza guztiak aora eramaten ditu. Zertarako? Aurrean ikusten dituan gauza oiek esistentzia ba-daukatenentz ikusteko. Xelebkeria dirudi, baiña alaxe da izan. Gero oiñez ibiltzen asten danean gorputzeko zentzuak eta bitartekak, distantziak, neurtuz, diferentziak artzen asten da. Agerraldi onen ezaupideak auek dira: berekoitasuna, arrokeria, ta batez ere zipozkeria. Azkenengo ezaupide au "Ni" ren konfirmaziño negati-boaren seiñalea da.

IRUGARREN AGERRALDIA

Zortzi urte. Adimena azaltzen da eta onen azaltzearekin kanpoko munduaren izatasunatzaz konturatzen da ta segituan bere bizitzaren konturatze garbi baten jabe egiten da. Eta konturatze onek berekoia egingo du aurre oso. Bera dala mundu guztia uste du aurrak ta norbaitek berak nai bezela serbitzen ez badu, orrentzat bekaizkeria besterik ez du. Gero "Ni" onek eta barruko bere deseo edo nai denak umearen atentiño osoa kolkoratzen dute. Orregatik gauz guztiak "Ni" onen goraberakin erkatuz epaituko ditu. Beretzako ondo datozkionak onetsiko ditu, ta gaizki datozkionak baztertuko.

LAUGARREN AGERRALDIA

Amabi-amalau urte.

Gogora dezagun "Ni"ren idorotzeak zeintzen duala bizar-aroa. Ezaupide bezala artu dezakegu, bada: gazteak bere nortasuna ezagutzea.

Garai ontan, bada, ots, amabi-amalau urte dituanean, gazteak, bere burua txit ondo ezagutzen du; Orain arte ez, etzuan ezagutzen, alegia, gazteak bere buruan nortasuna ezagutzen bazun ere etzeukan orain arte aintzakotzat. Orain, ordea, "Ni" norabit nau esaten du bere artean eta ambiente edo bere esistentziaren eta emengo gauzakin konturatzen asten da.

Leenengo agerraldiak bezelaxe onek ere ezaupide berbera ematen digu ezagutzeko, alegia, norberagandik kanpo dan mundua bere buruarekin erkatuz epaitzen duala. Baiña agerraldiak bereiztu ditzagun ondo. Izan ere, zortzi bat urteko aurrak bere burua inguratzen duan mundua ezagutu nai badu ere, ez dio ajola aundirik emango ez ezagutzeak, au ez da-ta problema zortzi urteko umearentzat. Orregatik, ez da estutuko. Berekixa datozkion datoak pozik artuko ditu; baiña ortik aurrera kitto, ezer ez.

Bizar-aroa ere ez da gelegi ajolatzen, baiña diferentzi bat ba-dago: bere inguruko gauzak esamiñatu egiten dituala. Bestaldetik, berriz, bizarduna ez da oraindik bere bizitzaren izate esentziala objetibokiago artu eta ulertzeko lain eta emendik sortzen zaio aldi penagarri bat, iñorekin konpontzen uzten ez dion aldi latza, garra-tza. Danen aurka egin bearrean arkitzen da, aldamenekoen aurka eta bere buruaren kontra egin bearrean. Bere gogoa ase ezin onek geienetan, idealak edo jomugak sortzen dizkio bere "Ni" onen sublimaziño bezela. Eta elburu auek agertzean, bere bizitzaren leenengo maila zeintzen du kon-turatu gabe.

BOSGARREN AGERRALDIA

Amase urte. Gazta-

roa. Bizitzaren puntu ontan bera ere norbait ba-dala arkitzen du gazteak, beste guztiengandik sor-kati berezi ta aparteko bat ba-dala, alegia.

Orainarte beste guztiak bezelakoxea izan da, baiña orain ez, orain beste bat da, ba-daki orain berak beste zor diena berari ere eman bear zaiona eta au deretxoz eskatzen du. Orregatik entzuten da gazteen artean ainbeste bider deretxo itza.

Gizon berri bat sortu da beragan eta konturatzen dan gaztea problema onetzaz, orregatik ondo biotzean artuko du bere personalidadearen eratzea. Orain arkitu duan "Ni" indartsu au borondatearen mantupean gelditzen da, adimenez argitutako borondatearen ardurapean.

Urte batzuk geroxeago bere "Ni" au psiko-fisikako manifestaziño guztietan gogortu, sendotu egiten da eta ez nolana sendotu ere, guztiz bizkor eta indarrez baizik, landar berri batek bere zaiñak lur on eta mamitsu bat arkitzen duanean bezelaxe. Bein ontara ezker bere "Ni" onen konfirmaziñoa ta sendotza iritxi du ta bere askatasuna ta personalidadea irabazten du. Eta gaztea uste ontan dagonentz jakiteko piska bat fijatu besterik ez daukagu. Fijatu nola billatzen dituan gazteak berekixa iritzi berriak beste edonork bezelaxe; makiña bat bider esaten du bere barnerako onako au: ori edo ura ni baiño zenbat geiago duk, ba? Eta zuek ba-dakizute nolako osotasunaren seiñaleak eukitzen dituan here lan eta teori guztiak; gizonik osotuena eta eratuena dala esango genduke ezagutuko ez bagenu.

GOGOZKO AKTIBIDADEA

LENENGO AGERRALDIA

Bosgarren urterarte.

Noiz esnatzen da adimena gizonagan? Aurraren lenengo urteetan, esan bearko genduke egia esateko. Ain zuzen ere, aurrak edozer gauza egin nai duanean, dalako egintza ori egiteko bear diran bide ta gaiak ongi erabiltzen ditu. Nola esplikatu genezake au? Berezko joerarekin bakarrik ezin genezake esplikatu ondo Gemelli;ren ustez. Ala ere, psikologilariak, askok beintzat, joera onekin bakarrik oso ondo argitu dezakegula problema au us-

te dute. Aurrak, nai dutena konsegitzeko, auxe besterik ez dute egiten: nai duten gauza lortzeko moduan jarri, eratu, egokitu. Baiña norbaitek galdetzen bada nola egokitzen dan edo egokitzeko lendabizi adimenaren bearra dagola, adimenaren lana bear dala, ona zer erantzuten duten: aurra onela egokitzen da, bere zentzuen elkarketarekin edo asoziaziñoen bidez alegia. Ezagutzea baiña leenago gogoratzea da; ez dugu esaten nola, ez dugu esaten nola euki dezaketen imajin edo irudi ori.

Gogozko lanaren edo aktibidadearen mugan umea imitatzen asten da aurretik ikusitakoa eta bere buruan pentsatutako gauzak. Imitaziñoz sartzen dira umeak ambienteen, imitaziñoz ikasten dute beren eskutan jartzten zaizkien tresnak erabiltzen eta dana esateko, imitazioz ikasten dute bizitzen.

Askotan autoktonuak dirala agertu nai izaten dute, baiña bere baitan ideal bezela artuta daukaten norbaiten aztarnak jarraitzen dituzte.

Agerraldi onen azkenengo urtean, adimena garbi agertzen da, batez ere mintzôa ikasten duanean. Izkuntza ikasten ari danean, itzak eta beste edozein abotsetan argiro agertzen da adimenaren lana, adimenaren artu-emanik gabe ezin ditteke esplikatatu maillan maillako lan au. Baiña adimenaren egizko almena bosgarren urte aldean agertzen da, binbitartean osotzen ari da.

Orregatik manifestaziño ontan aurrak ematen duan nolatasun edo karakteristikarik nagusiena zera da, adimena edo ezaguera argiagoa egiten ari dan eran bere fantasia urritzen dijoala. Urte auetan, aurra, irudimenarekin bizi da, irudimena da bere izate guztia. Umeak ez ditu bereizten errealidadea eta bere fantasia, irudimena, agerraldi onen azken alde arte.

Umea asko pozten da jostailuekin eta batez ere bere irudimenean dauzkan jolasekin eta auen bidez aldamenean daukan mundua oinperatuz, berak beste mundu berri bat osatzen du.

BIGARREN AGERRALDIA

Bostetik bederatzi urtearte. Agerraldi onen asiera nola ezagutzen da? Leenengo manifestaziñoaren azkenengo maillatik, bigarren agerraldi onen leenengo maillara salto aundirik ez dugu billatu bear. Baiña agerraldiak separatzeko lainekoa bai, ba-dago-ta. Aurreneko manifestaziñoan esan dugu izkuntza ikasten astean umeak adimenaren lanez ez bada ezin esplikatu di-tezen aktibidadeak azaltzen dituala. Orregatik ez dugu esango, bigarren manifestaziñoaren ezaupidea adimenaren aktibidadearen asiera danik, ez; asiera ementxe datza: emen, adimenaren aktibidadea refle-joa egiten dala. Orregatik beste arpegi bat artu-rik, elburu au iristeko lortu bideak jartzen ditu-alako. Ume baten adimenaren azkortza, egiten ditun galderatatik igarri diteke. Aurra bosgarren ager-tean oraindik ez da juizio bat egiteko lain. Ia be-ti onela egin oi du galdera: zertarako edo nola? Eta itz auekin zer galdetu nai izaten dute? Ziur ezin genezake esan; baiña askotan ez dute nola dan galdetu nai izaten, zeinena edo zer dan baizik. Eta onelako beste milla galderekin berdin. Orre-gatik galdera auei juizioak baderitzazkiegu, jui-zio elementalak dira oso, personai eta objetoai nolatasunak ezarrerezten dizkien juizioak.

Aurra aurrerapen apur bat geiago egiten duanean, onela galdetzen du: nor da? zergatik? Bein onera ezker ezaguerazko adimena esna dago ta gau-za guztien sustraiak jakitzeko irrikatzen. Une on-tara zazpi bat urtekin allatzen da, izan ere mai-lla ontara eltze arimako almen edo potentzi ja-soenak bear dira ta ala bearrez zazpi urteekin agertzen dira potentzi auek gizonagan. Bein mailla ontara allatu ezker aurrak aldaketa aundiak egi-ten ditu. Orain arte umeak imitaziñozko bizitza e-gin du, orain bertan-bera uzten du bizitza au eta bere bizitza bizitzen asten da. Orain asten da era berean errazioziñoa ta gogoai edo ideen juizioa. Gaurtik, bada, bere eginkizun guztietan jomuga, i-deal bat jarriko du ta jomuga ori eskuratzeko be-ar dituan bideak ere bai. Gizontto bat da ia.

IRUGARREN AGERRALDIA

Amarretik amalau urte arte. Errealismua. Eta gizonttoa, orain, eza-

gutzen ez dituan milla izakien artean arkitzen da. Leentxeago, kriaturek beren artean daukaten erlaziñoaz arduratzen zan, orain izaki oien jatorria, naturaleza ta esistentzia jakin nai ditu. Adimenaren ikustean fantasiaren indarra aultzen eta gutxitzen zaionean, kausalidadearen artu-emanen jakin-miña sortzen zaio, gauzak azterkatzeko naia ta munduaren errealidadea ezagutu naia. Orregaitik zaizkio ain atsegin aldi ontan zientzi naturalak. Onen ondore bezela, gizonttoari erokeriak derizkio irudipenaren kontuak, parre eragiteko zabarkeriak bezela alegia, ta umeen gauzak bezela. Ori zapuztuta, iralurtzeko ta ikasteko joera bizi bat izaten du aldi ontan. Ontarako asko laguntzen dio bere oroimen argiak; orregaitik norbaitek galdetzen badio zerbait eta erantzun al badu atsegin aundia artzen du eta orregaitik bere pozik aundiena auxe izaten da: ikasten ari dala eta ikasiko duala jakitea. Arrazoi onegaitik hetu animatu egin bear da ta dakitenak aurrera ta ez dakitenak atzera bialtzea, an baztertuta uzteko, oso txarra da, umeak konplejua artzen dutelako.

LAUGARREN AGERRALDIA

Amalautik amasei arte. Agerraldi au bigarrenaren gisakoa da. An ikusi dugunez zortzi urteko umeak, irudimenaren indarragaitik, onek galazten ziolako, ezin artu zuan errealidadea dan bezela. Amalau urteekin ere ezin berdiñean arkitzen da. Zergaitik? Begira, garai ontan mutikoaren baitan afektibidade berri bat jaiotzen da eta afektibidade onekin zentzuak ematen duten datu guztiak bere animako egoera orren antzera aldatzen ditu. Eta subjetibismu au izugarria da; askotan onela edo ala gertatu diran gauzak, berak nai lituzkenakin naasten ditu eta berak bere fantasian sortu dituan gogo utsezko konteniduekin realidadeko konteniduekin bat egiten dute.

BOSGARREN AGERRALDIA

Amaseitik emezortzi urtearte. Mutil gaztea ez da oraindik bere subjetibismua garaitzeko lain. Kanpoko munduak damaizkion datuak bere barnean daraman afektibi-

dade jaio-berriaren bidez dana berak nai bezela aldatuz lan egiten du ta ezin du beste modura, ez da ortarako lain.

Baiña gazteak bai, gazteak ardura izango du kanpoko errealdadearekin, baiña onek ere norberetasunez naastuta askotan, noizik bein objektiboki ezagutzen duanik ukatzeke.

Agerraldi omen izan modu berezia auxeda: subjektibismuaren eta fantasiaren batasuna. Gaztearen juizioak subjektibismuz beteta egoten dira eta bere fantasi aberatsaren kimuak dirala, aguro ezagutzen da eta bi faktore auek, subjektibismua eta fantasia alegia, eragiten diote gazteari joan-aroko eginkizunak aztertzerara eta oiek pozik artzera. Orregatik garai ontan egunerokoa eskribitzen asten dira zerbait ikasi duten gazte denak. Egunerokoa idaztea oso atsegiña izaten da gaztearentzat, atsedengune bat bezela artzen baidute; antxe iraultzen dute biotz guztia ta eskribitutako notiziak, lagunik miñemari esaten dizkiotenean pozik gelditzen diran bezela, gelditzen dira. Mutillak amabost bat urtekin asten dira ta emeretzi urterarte irauten dute klase oh-tako egunerokoa egiten.

Ikusi dezagun orain fantasia. Gaztearen fantasia ez da egillea, ezta originala ere, agerpenetan beñipein. Ortarako osogarriak palta zaizkio; fantasia oso azkarra ta egillea da berez eta bestetik berriz gai urriak dauzka gazteak oraindik. Au dala-ta askotan bederen irudipenaren aktibidadeak adimenaren aktibidadeari oztopo egiten dio. Maiz, aixa erabi al lituzketen arazoetan pot egiten dute, bildurtuta, galduta zearo. Fantasiaren aberastasunak, adimenaren bizitza antzuegiten du.

Emendik ondore auxe atera dezakegu: gazteak ez duala ikusten dan bezela errealdadea. Mutikoak eta gazteak irakinda daukaten fantasiakin ikusten duten errealdadearekin bizi dira beste ezerkin baiño geiago. Onexegatik izaten dira gelenetan gazteen kritika gogor eta uts oiek.

Esnaole "tar Anastasio ofm.
Arantzazu

LITERATURA

BIDEAN

Maiz entzun oi ditugu euskal-leteraturaren balio ta erruak aitortzen dizkiguten ainbat esamesa. Alegia, idazle batzuk euskera zakar ta astuna darabiltela, beste batzuk berriz arin, labur ta ukibera. Nere ustez, ba-du esate onek bere egi mardul borobilla. Zenbat bider ikusten ditugu xamurtasun gabeko idazlan zakar ta totelak. Idazkera orren erdoiak, gaurko irakurleari euskeraganako naskagura galgarri bat sortu oi dio. Euskal-idazleak arritan irudi bizi ta leunetan galitzen ez direlako, irakurleari etzaio atsegin euskera irakurtzen.

Sentimentuak indar berezia du literaturan. Gaia, maiz sakona izan, egokiago sartzearren sentimentua ukitzera jo bear dugu idazleok. Biotza sentimentu ta lillura guriari ukibera zaio; ez, ordea, zabarkeri elkorrari. Ez dut esan nai onekin, gai sakon ta zorrotzak erabilli ez ditezkenik, baizik eta idazkera apain, bigun ta atsegifiak eskuratu bearrean gerala. Gai elkorrak legungarri, bustigarri bat bear dute, bestela, maiz, lan alper, galduak lirake, batez ere gaurko irakurlearentzat. Bestalde. Gaur egungo irakurle euskaldun askok erdel literatura irakurria dute. Ango itz-arinta-

sun, aberastasun ta joskera bitxiari oiturik, nola etsi bat gurean literatura motel, apaindugabeko ta zaartu bati?...

Egi galanta ere da, gauz egokiagoa dala iru edo lau idea mamitsuzko idazlan txukun, dotorea, beste ogeita zazpiko illun ta gogorra baiño. Zergaitik? An, irakurlearen sentimentuak biotz eragitez lilluraturik, apaingarri bat dakusalako, bestean ordea, biotzak erakargarririk gabe ez du bultzadarik idea oien indarra onartzeko, eta nazkak menderaturik pot egiten du laister.

ERDERARI BEGIRAZ

Sarri eduki izan ditut esku artean, gaur egungo idazle sonatu diran Antonio Machado, Juan Ramón Jiménez, Azorín, Asunción Silva, Salinas, Concha Espina t.a., ta auen irakurraidiak zenbat aogozo legunak eman dizkidaten! Alako idazkera mee, garbi ta ugaria; asmaketa ausarta, biurriak; amets-eredu piñak, irudi apain, biotz ukigarriak. Itxuraz, joskera ta danean atsegin gozo darion literatura! Egia esan, gure Lizardi aundiak ez du lotsarik auen aurrean; baiña, beste euskal-idazle askok, zenbat bide oraindiño ibilli bearrean! Noski, euskal-literatura, oraindik gaztea dugulako, au konprenigarria da; baiña alderdia or gelditzen da beti. Juan Ramón Jiménez'ek, adibidez, zenbat orrialde legunki miazkagarriak dauzkan! Biotza beratzen da onen olerkitasun guri-xoillaz. Ta, prantzitar, italiar, alemaniar ta beste askori begiraz ere, zer esanik ezdaukagu. Espaiñiar literatura bere bigarren urrearoran dagola bat baiño geiagoeak esan didate. Nere iritziz, ez nuke ukatuko au. Gaurko espaiñiar literatura ugari, atsegin ta baliotsua da. Lirikan bertan, goitar ta mee dabiltz Machado ta Juan Ramón Jiménez batzuk.

EUSKERAREN LAGUNTZAN

Aberaski guzi oiek ikusirik, ez ote litzake egoki ta zillegi, erdel sorotik balio oiek gureganatzea? Ona dana ez da zapuztu bear, naiz erdelerritik etorri. Edertasuna lilluragarria zaio beraz, bai euskaldunari, bai alemaniarri, bai japoitarri. Orain, ordea,

edertasuna norberagan sujetibua izanik, oni atsegin zaiona besteari ez atsegiña litzaioke. Baiña, oraindik ez nator ortara.

Literatura kondairaren zear, literatura mota edo era asko dauzkagu; era auek, edertasunaren adierazle ezberdiñak baiña ez dira, au da, estetikaren adierazle. Kondaira jarraituaz, errez dakuskegu era oiek, naiz sorlekua izkuntza batean eduki, Europa'ko beste izkuntza askok bereganatzen zituztela. Eta au ez literaturan bakarrik, baita pilosopi ideatan ere. Adibidez, ikus dezagun erromantizismoa. Mugimentu berri onek europar kultura galanki aldatu zuan. Lenengoz, arrazoikeria sentimentu-kutsu berati batez kendu zuan. Geroago, klasikuetara makurtu zan; ondoren ere, bide askotara. Baiña, erromantizismu-joera guzti oiek, erri ta izkuntza ezberdiñetan eduki zituzten jarraitzailleak. Onela lenengo aldian, Inglateran: Thompson, Richardson; Prantzian: Rousseau, Diderot; Alemanian: Lessing; ta Espaiñin: Jovellanos. Geroago, europar asko ikusiko ditugu naasian joera berdiñarekin: Goethe, Hoffmann, Heine, Victor Hugo, Walter Scott, Zorrilla, Bécquer t.a. Beraz, izkuntza bakoitzaren izatera eratu zan, baiña onek etzion kendu guzti auetan joera berdiñak nabaitzea. Apur bat etxeraturik, euskal-literaturan bertan, ba-dauzkagu egi onen adibide bikaiñak. Euskerak, literatur artu-eman auek egiteko, berez beintzat oztoporik ezdauka. Izkuntza guztiak bezela, alako ta alako sentimentuak azaltzeko antz bereziak dauzka ele batzuekin.

Gure Aitzol jaun agurgarriak, onela dio Lauaxeta bizkaitar olerkari aundiatzaz: "Berez olerkari jaio ba-da, erdereetakoak irakurri ta ikasteakin aurrerapen galanta itsasi zaizka. Batez ere, Prantzian aizkeneko gizald etan agertu diran olerkarienganako zaletasun bizia nabaitzen diogu. Francis Jammes biotz-bigun, gauz txikitxoentertilari trebearenetik, Baudelaire elerti iraulari, "Parnasisme" taldea irasi zuan olerkari arenetaraiñoako bertso arrigarrienak euskeratu dizkigu. Biotz biguñekoa bera, biotz barru-barrundik irtendako leuntasun miña eta apaltasun meea daramazkiten olerkiak sortzea atsegin zaio, noski, Lauaxeta'ri. Verlaine, Sully-Prudhome, Manzoni,

Coppée eta Heredia'ren minkutasun eta leuntasunak Urkiaga'ren oldargiari eragiten diote". Itz auek argiagoak dira nere esanaia adierazteko. Ikusi dugunez, Lauaxeta aundia, prantzitar parnasistarren jarraitzaille bezela azaldu digu Aitzol jaunak. Benetan, nola apainduko, nola aberastuko, ba, izkuntzak, bere serotikan bakarrik? Bat bestearen bidez, laguntzaz eta ideaz loretu dira gaurko kultur izkuntzak. Izan ere, ele baten literatur bide batek, ez du aitortzen, a priori beintzat, beste izkuntzaren ez-egokitasuna. Orregatik, izkuntza baten bereiztasun edo izatearekin obekigo datozen, joera batzuk sendoago, barruago onarturik ikusten ditugu.

Arrazoi onen bidez, goragarri ta itxurazkoa litzake, erdel literatura gure euskeraren aberats-iturritzat artzea. itxuratze onek, neurri onean egiñik, ez lioke euskerari bere nortasuna itzalduko, ezta ere garbitasunik kenduko. Baizik eta euskerak berez gordetzen dituan apaingaiak adierazten eta esnatzen lagunduko lioke. Apaltzeko bildurrez edo uste txar arroxkaz, ez dugu uste izan bear, ez dagola iñoren bearrean gure euskera. Egia da, azken gizaldi ontan, galanki jorratua ta abestua izan dala; baiña, tamalez, izkuntza landu edo kultur-ele maillara iristeko, bide mutur luzetxoa daukagu, oraindik aurrean. Ez gaitezen zalekeri itxuaz, gure euskeraren zigortzailleak. Erdel kutsu oiek gure izatearen eta arrazaren kontra dijoazela norbaitek esan lezake. Arrazoa zenduke, irakurle, arrisku ori balego; baiña, aurrez esana dut, euskeraren izateari dagokion literatur joera onartu daikela bakarrik. Euskera ez da literatura-rentzat, literatura baizik euskerarentzako. Gauz agiria da, gizartean edozer gaietan kopiagarri asko agertzen dirala. Gizartea bat bestearen artu-emanaz bizi da. Literaturak ere, elkartasun oiek ipiñi ditzazke.

IDAZKERA BAT

Idazkera baten egokitasun ta aberaskiak azaltzera natorkizu, irakurle. Idazkera apain onen susmoak oartu ditut beste euskal-idazle jator batzuetan. Barkatu, baiña, besteren batean gai onetzaz zabalago jardutea asmo izaki, oraingo laburrean bada, au beintzat.

Itzal aundiko ta ezaguna dugu Juan Ramón Jiménez, 1956'ko Nobel sariduna. Euskaldunen artean, ba-dira amaika, olerkari onen liburuxka zoragarri dan "Platero y yo" irakurritakoak. Baiña, oar ondo. Erderaz irakurria, esan nai dut; euskerazkoan, bere balio ta olerkitasuna, zerbait itzalduak daude-ta.

Zorionez, bein batean, etorri zan nere eskuetara liburuxka ori, ta bai zoratu, lilluratu ere. Aren poesitasunez, olerkari senti nintzan inoiz ez ala. Olerkitasun aren leunak, biotza ezitu, olermena azkatu ta kantari biurtzen zuan. Ura olerki jario ezitibera! Ura ederraren, poesiaren laztan gozo ta zabala! Lizardi ta Loramendi'k, aldi ain mee ta goitarrez atsegindu ninduten au, Juan Ramón Jiménez'en olerkitasunaren lillura erakargarriak, biotza ta adimena, ziaro itxutu zizkidan ederrez. Baiña, nola senti au guztia, euskaldun izanik? Euskerak, alako olerkari goitarrak edukiz, nola ezin-etsi, eder-txorabioz, erdeldun baten olermenari...? Nere sentimentuak damait arrazoi guztia. Juan Ramón'en idazkera, euskal izatearekin arrigarriri egokitzen da nozki. Egiaz, ba-ditut beste makiñabat erderean irakurriak, baña auetako batzuk, ez naute txoratu, ezta gutxiago ere; nere euskal-izatearekin ez datozelako, alegia. Adibidez, Rubén Darío'ren idazkera arro ta puztuak, euskeraren xoiltasun zuhurrarekin elkartze egokirik ez du, askotan beintzat. Berari irakurtzeak ez-nai edo alako dama. Gañera, latin-izkuntzak irudimen askatu, banatukoak dira. Europa goikoak, inglesak, alemaniarrak, errusiarrak, eta auekin bat euskaldunak, ez gera itz-arro ta irudi aundikoen zale. Euskera, irudietanlaburra, xoilla, neurtua dugu. Onekin, irudimen askatu zaleeri, ez diet uka nai leku euskal literaturan. Bañan, bai azaldu, euskera ta euskaltasunak daskaizkigun zuhurtasun ta xoiltasun oiek. Gañera, zuhurtasunak ez du ukatzen olerkitasun aberatsa, ezta ere irudi ta metaforaen ugaritasuna.

Juan Ramón'engana biurtuaz, auxe adierazi bear dut: irudietan, itzetan eta izkera osoan, euskerarekin berebiziko elkartasun egoki ta aberatsa daukala. Ez dut ikusi, idazkera ontan, xoiltasuna ta irudien bizitasuna baizik. Idazkera, guz-

tiz bitxi, xamur ta atsegiña du; itz errez eta apaiñen bidez, irudiak garbi jazten ditu; ez dago beregan illuntasunik, musika ta olerki-jario mee ta leuna baiño.

* * * * *

Irakurle, emen natorkizu, ba, lan au bkkatzera. Agian, gauzak labur ta illun jarri dizkizut. Nere esanaia entenditu baduzu, naiko dut.

Azken urte auetan, emen gabiltz euskaldunal zer bide edo jokaera artu literaturan. Batzuk errezero, ariñera jotzen dute. Beste batzuk garbizalegiak ote diran esango genuke. Azken batzarreko YAKINlarien nai ta asmoak ezagunak ditugu. Guztiak idazkera arin, atsegiñera makurtzen dira zorionez, ta jakiña, onegatik gai sakon ta kultur kutsukoak baztertu gabe.

Juan Ramón Jiménez'en idazkera aurrean daukagu. Ba-liteke, norabitek, berritasun au, olerkariarentzat prosistentzat baiñp egokiago dala baiestea. Aua ala izanik ere, gutxi ote litzake..?

Gaur, euskara sendotu eta maitarazteko, literatura atsegin, xamur bat bear dugu; baiña kontuz! xamurtasun orrekin literatur ugaritasun ta aberastasuna ajolakabetu gabe.

Muxika'tar Luis Mari
Villaro'ko Sakramentinoa.

EGUNGO

ERTI

BERRIA

Biurritu egin bear gure adimen setatsu au ogeigarrenge erti-alorretan murgildu aurretik. Orainarte ain atsegin zitzaigun erti gozatsu aren aurka datorkigu gaurko erti berri au. Gure mundu zaar au azpikoz gain jarri zaigu giza-jakintza gai guztietan. Au egon-eziña politikañ, ekonomia arauketan eta gizarteko artu-eman guztietan. Eta nola es egongo ertiaren uartzte ekaiztsu au ikusiaz.

Alde guzietako egon-ezin au nai-ta nai-ez azaldu bear zitzaigun jolaskorra dugun ogeigarrenge erti biurri ontan. Egungo margo-ertilanak leizulotan arkitzen ditugunakin kidetasun aundikoak deritzaizkit. Esan genezake gizadia, berriro jaioaz umetuaz, edesti, jakintza ta erti-alor osoa berritu naian dabilela.

I.- ZER DUGU GAURKO ERTI BERRI AU ?

A) Ertilariaren adimena.

Alderazi bear lenengoz Erti onen berezitasun bat: ertilariari

ez dio ajolik erriaren esanak, bere barrura begira lan egiten baidu. Erria alde batera utzi duala dirudi. Egungo ertilariak, nortasun, izakera ta kezka guztiak azaldu nai dizkigu bere lanetan; orixe du bere jomuga ta elburua. Ez du lanik egin nai, museoetan, ume-arpegi edo lore politez jantziriko arlo baten aurrean txokilduta gelditu oi diranentzat. Beste zerbait geiago nai luke. Orain amar milla urte egindako margo-lan aiek, berak dionez, etziran erakusaldi edo esposizioetan azaltzeko egiñak; ertilari-animetik sorturiko eginbear berezi bat betetzearren baizik.

Esan dugunez, ertilariak, ez du beste iñorekin pentsatzen lanari ekitean, barru-indarrak egotzirik, izakiak bere animan utzi duten oiñatz sakona arlo edo irudi batean ezarri nai luke. Bere irudimena arinduta, barruan zeukan "zea" ori azaldu ondoren pozik dago. Luzaro iraungo dula ba-daki "zea" orrek; baita baten batek ikusiko duna ere; baiña pentsa dezala ondo, begira gelditzen dan orrek, eta artu bezaio bizkor margo artean gorderik dagon "zea" ori. Baldin arlo orrek zer dasaion asmatzen ez badu, irriparez, skotza luzatuaz aurrera igaroko da. Ori da gaur askotxori gertatzen zaiena - "Au zer da...?" betiko galdera aspergarria.

Von Gebelentz'ek dionez: "Izkuntza ez da inguruko izakiak ezagutzeko bakarrik; baita gure barne-muiña azaltzeko ere". Mintzoera alkar-uler-bidea danez, ertia ere, bere magalean txokoturik ageri da.

B) Erti-lan egikera.

1.- Egungo ta antziñakoa.

Ogeigarren gizaldiko erti naasi au ez deritzat ikusmira alperkeriz datozenentzat. Erti berri au ez dugu geldia, gazi-geza oietakoa, arazo oxanpaz beteriko gizon kementsuena baizik.

Gure inguruko izadien irudi azaltsu zintzo bat egitea ezin esan dezakegu erreza danik. Baiña ez da ori izan beiñere ertilari gaillurren jarraibide ta elburua. Orregatik erti-lan nagusietan -naiz antxiñakoetan- ertilariak aurrean ikus-

ten duan "uraxe" berriztu izan nai arren, ez du beti azaletik agiri dan bezelaxe egin, bere animan tinkatu duan irudiari jarraituaz baizik. Arkaitz-zuloetan arkitzen diran, orain amar milla urte egiñiko margo apaiñak ikusi besterik ez daukagu: antxiñako Egipto'tarren erti bikaiña; Babilonia ta Asiria'ko irudi ikusgarriak; Bizantzio'tarren lan txukunak; godotarrenak t.a. Danak markestu ta eraldatu dute begiak azaltzen dien "uraxe"; ez jolasean, emendik kendu ta andik jarriaz, artara beartuak arkitzen diralako baizik. Ez uste orratio, lan erreza danik: izadi-irudia orraztu, bakandu bere lerroak, itz bitan, gogai antzoa eman begiak ikusten duanari. Ez an eta emen, au daukala ta ez daukala aurrean ikusten duan izaki arek. "Zer dasaio orrek nere animari?" Onek izan bear du margolariaren galdera garaiena.

2.- Grezia ta Erroma'tarren ertia.

Atenas ta Erroma'n sorturiko erti zoragarria, izaki eder bat zuen antzeski soil bat besterik etzala pentsa dezake norbaitek. Zein urruti dabillen egitik onela pentsatzen duana! Ona emen irudigintzako lan batzuk: "Milo'ko Venus", "Rodas'ko Laocoonte", eta "Parthenon" ikusgarriaren goialdeko apaingarriak.

Erti klasiku onek ez digu gauzen bakarrik azaldu nai, egunero ikusten ditugun bezela. Grezia'tar edo Erroma'tarrak gu bezain aragizkoak ziran, baiña, aitzeko gizirudi aiek zerhait geiago azaldu nai zuten: gizadiaren egarri ameskorra, gizatasun jainkotar eldugaitz baten egarri sutsua. Orregatik ertilari aiek arritzar aietan tinkatu nai izan zuten beren biotzetan zeramakiten gizadi osotu baten egarria. Beraz, giza-irudi aiek etziran benetako antzezkiak, ederrez gainezka zeuden eredu nagusi, arketipu, batzuk baizik. Egitik urrun zebiltzan ordukoak ere, begiak ikusten duten egitik, alegia.

3.- Errenazimentu'ko ertia.

Amabosgarren mendean, ainbat edertasun galdu etzitezen, ber-

piztu nai izan zuten erti klasiku ura, errenazimientu izenez ezagutzen dugu. Bigarren erti-pizkunde au, ordea, -berezkoa etzanez- ezin zitekean lenengoa bezin bizi tentetu. Orregatik garai ontako lan asko, edertasun zalekeria beste laguntzarik etzutela, motel xamarrak dagerzkigu. Danetik arkitu dezakegu errenazimientu kida onetan.

Orrela ibilli da margo-ertia gure egunetaraño. Erti oni, batzuetan ederra izan arren, "gezurtia" izendatzea ondo deritzait, amabosgarren mendeko gizadi animaren ispillu argi bat izan bearrari uka egin ziotelako.

Egungo ertilariak, berriz, antziñakoe-tara dijoazkigu. Zertan amaituko ote? Dana dala, ertilari ta erri jendearen arteko guda gogor baten aurrean arkitzen gera. Bati ez dio ajolik besteak zer dioten; ta erriak ez daki zer esan nai duan margo naasketa arek. Ertiberrizale auek, beste guziengandik aurrera bizi dirala, nik uste. Noiz edo noiz uxatuko dira elkar-ikusi ezin oiek.

II.- EGUNGO ERTI-LANEN ARPEGI ONURAGARRIA

Ezin ukatu erti-aro askoen jaiotzan, gizonen eguneroko beargune-betetzea izan zala bultzapen nagusia. Argi dager au etxegintzan, adibidez: leizazuloko ta "palafitos" deritzaien arri baldarrez egiñiko gordelekuetan, beti ibilli oi zan apainduri-zalekeri gaiñetik onurakortasun egarri bat. Gaurko ertilariak ere antziñatarren jarraitzailletzat dauzkat.

Egungo erti berri au teknika arlo guzietan sartzen zaigu. Oraindaiño beti joan dira eskutik gizonen esbearrak legundu naian eta beren arteko artu-emanak bizigarriz jantziaz. Ertia, berriz, jostaketa umekor bat zeritzaien askori.

Erkatu dezagun gure erti berri au lenez sorturiko anaiekin.

Aitz-aroko ertilariak -esan dugunez- bearguneari jarraituaz, edertasun berezi bat itsasten zion bete lanari.

Errenazimientuz geroztik, batez ere Barroko erti-aroan, edergailluz ittotzen zituzten erti-lan guziek.

Gaur berriro antziñetara goaz. Gaurko ertiak ekin berezi bat daramaki: gizonari bere eginbearretan laguntza eskeiñi. Margolariak, gaur, zer ikusi aundia dauka propaganda gaietan, ziñe antolaketan, t.a. Orra or margo-ertia, onurakortasuna jomuga duala. Beraz teknika ta jakintzak elburu orixe daukatenez ertiarekin batu dira.

Orain ikusi daikegu Geometri utsez sorturiko irudigintza; baita optika soilik margo-lanetan ere. Erti ondamendia ote? Askori alaxe deritzaie. Zerbait egi ba-daramaki galdera orrek: len aitaturiko edergailluz ittorik ageri dan erti orren eriotza, bai; baiña ez oraindik ume dugun egungo erti berri onena.

Egiz izendatu ditzazkegu ertitzaz, gaurko egunez egin oi diran lan asko. Teknika-arau zorrotzez egiñiko abioi bat, adibidez, erti-lan bat izan diteke.

Egilleak ez du erabilli buruan an edo emen ezarriko dioh apainduria; egoak nola aizeari oztopo gutxiago egingo dioten baizik; nola zorrotzu atze-aurreak laistertasuna geitzearren; eta orrela beste guziak. Azkenik, kalkulu guztiak egin ondoren, sortu du abioi liraiña; ez du ezertxo ere alperrikakorik; beargune betetze soil bat besterik ez du apaingarri.

Ori da gaurko erti berriaren ondorena.

* * * * *

Ontaraiño eldu geranez, ezin daikegu oniritzi Schiller'ek ziona, alegia, ertia ezbeurreko jostaketa bat besterik ez dala. Au ez da egia gaurko egunez. Alde batera utzi bear dugu irudimen oker au.

Gaurko ertiatzaz egi egia auxe dugu: Ertiak beti jantzi izan ditu orainarteko giza-lan guztiak; gaurko egunez, ordea, ez dugu erti au adonortzat artzen len oi zuten bezela. Gaurko

gizonak, edesti aurretikoak bezela, teknikari jarraitu utsean, edertasun berezi bat azaltzen ikasi dugu. Ori dugu gaurko aurrerapen nagusia: teknika ta ertia senideak dirala deritzait. Ez kendu bietako iñor, elkarrekin bizi baitira.

Erti berri onen indarrez, apainduri alperrekoak ezerezera biurtu dira. Eztegu emendik aurrera Elizetan ere, orainartekotan aiña alper-apainduri aspergarririk ikusiko.

Barroko deritzaion garaiko ikusmen okerak itto ziran berak sorturiko narratxkerietan.

Beste garai bati eldu diogu, argiago ta biziagoari. Pozik gaitez.

Ez nuke bukatu nai gauzatxo bat esan gabe: Erti berri onen korapillorik zaillena ertilari berak ditugu. Asko dira, bai, gaurkoz erti berri oni zintzo jarraituaz dabiltenak; askoz geiago, ordea, "ertilari" arroputz, txiriporro alakoak. Denak dabilta naasiak. Utzi ditzagun pakean. Elduko da noizbait piñak eta ustelak banatuko dituan eguna... Noiz...?

Ulazia'tar Yon, ofm.

Erri-Berri'ko (Olite) filosofaria

Pio M^{re} MoRTAR^{re}: JUDAR ETA EUSKALZALE

Askok ez bada ere, batzuk zeozer entzuna izango dute Pio Maria Mortaratzaz.

Bere bizitza jakin nuan egunetik ain atsegin izan zitzaidalako edo... lerro batzuk eskeintzen dizkitzuet gai oni buruz nik baiño gutxiago dakizutenai.

Darabilkidan gizona, gaurkoa ez dalarik, ez da il zaarra. 1944'an eman zuan bere azken arnasa Lieja'n, 93 urte zituala.

Baiña asi gaitezen bere jaiotzetik gertaeraen berri sortu ziran eran, maillan edesten.

Bolonia'n (Italian) jaio zan 1851'ko Dagonillaren 27'an aita-ama israeldarrengandik. "Artean illabete batzuk nituala -dio berak-zaiñetako min (neuritis) batek il zorian jarri ninduan. Orduan, Ana Mosini, neskame gazte ta katolikuak, nengoan seaskan bataiatu ninduan. Baiña aren ustearen aurka, bataioaren ondoren il ez, baizik sendatu eta indartu egin nintzan! Bere larritasunean gertaera ura ixillik eukitzea erabaki zuan, nere etorrera Jaunaren eskuetan utzirik".

Neskamearen bildurra zeñen aundia zan zazpi urte geroago azalduko da garbiro. Pio'ren anai ttiki bat gaizki dago ta oso gaizki egon ere. Alboko emakume batek onela dasaio neskameari: "Bataiatu zan, il baiño len". Ana Mosini'k gogoan darama aurretik jazoa, ta ez da ausartzen. Zoriturrez, ordea, bestalde gertatzen da oraingoan. Aurra il egiten baita.

Gertagai onen ondoren zabaldu zan orduarte ixillik zegona. Pio'ren bataioa, alegia. Eta ainbeste zabaldu izan bear zuan, Pio IX, orduko Aita Santuak ere izan zuan aditzera.

Urte aietan Erroma'ko Aita Santua zan Bolonia'ko lurraldeen Errege, eta Erregeai bezela zetorkion eskubideaz ume ura Erroma'ra eramandarazi zuan. 1858'an bete zan agindua. Aurten eun urte.

Mortara berak dionez, bizi guztiko nagabea izan zuten bere gurasoak semearen urrundutzearekin... Eta Aita Santuaganako asarrea zer esanik ez.

"Mortara umea"ren gertaera egun aietan Doipuruari aurka egiteko liberalak zerabilkiten leloa. Sei illabete luzetan ibilli zan aoz-ao nola eskubitan ala ezkerretan "Mortara umea"ren arazoa. Izparringiak ere etzutên gai au baiño maiteagorik.

Azkenik, arrazoia garaille aterata, Mortara umea, artean zazpi urte, Erroma'ko "Canonigos Regulares de Letran"zeritzaienai azitzeko ta ezitzeko emana izan zan.

Aita aiek begietako niniai bezain arreta artuaz, Aita Santuaren esanetara zuzen zera makiten gazte argi ura. Ta naiz gizon urteetara iritxi, eskudun egin, etzuan urbildu nai izan gurasoengana.

Apaizgintza elburutzat jota ia iritxian zegon mutilla 1870'an ikaraturik dakusgu garibalditarren kaiñoi otsa entzutean. Liberalak Erroma'ren aurka datoz, Aita Santuaren aurka. "Mortara umea"k bide eman diola guda ari aiaziaz. Pio IX irauteko, eusteko itxura bat egin eta etsai menderatu zan.

Mortara'ren aita San Pedro ad Vincula'ren eliz atarian, umeak aldegin etzesan ura biltzen zuten gudari artean urduri dago, semea noiz bereganatuko. Ez alperrik! Gure Mortara'k utzi du sotana ta paisano jantziar or dijoa gudari tartea aieri iruzur egiñik. Etzuten asko uste olako ziririk sartuko zienik! Erroma'tik iges iritxi da Austria'ra ta bai ondo artua izan ere Meustift Abadia'ko, Lekaiburutzako Laterandarren-gatik.

Pio IX Mortara'k aldegin zuala jakite-an gerra ere irabazi zuala zirudin. Aren poza.

Austria'ra iritxi bazan, etzan lo egitera iritxi. Eman dio esku artean zekarzkian ikas-lanai ta aurki da txapeldun, Teologian Doktor aundizena lortuaz, baita Batxiller ere Zientzietan.

Ori utsa baillitza, beste bi lagunaz inguraturik, iru Laterandar Lekaidetxe iriki ditu Austria'n bertan. Baiña gure judua gizona da ta, oinbeste ikaste sakon ta lanak osasuna ondatu diote. Joan Bosco Deunak, denpora gutxirako dasaio; San Jose egunerako arenak egiña duala. Aurretik Santu onek berak azaldua zion Mortara'ri buruz izandako ikuspen bat. Baiña oraingo ontan igarle ustela ateratzen da.

1880'ko Azaroaren 2'an Frantzia'n argitaratu zan agiriak Marseille'n arrapatu dio osasun billa etorrita. Eta lege berri onen mami zakarrak au zion: "Nazio ontan Lekaidi, erlijio-ordena guztiak ezereztuta gelditzen dira gaurtik, eta bertan dauden Lekaide atzerritarrak bijoazela emendik ate ogetalau ordu barru..." Zer egin? Italiara ezin daiteke joan, an igesti joa izan baida. Frantzia'ko etxeak, Laterandar etxeak iritxi dituztela irakurtzen du Lege berria dakarren izparringian bertan. Nora jo?

Ario artan beretzat ama bat izan emakume on batek bere etxean gordetzen du sei illabete an igaro bearko baditu ere. Azkenik Austria'ra aldegiteko tartea izan du ta len egondako Abadian bertan orduan bezin arrera ona egiten diote.

Baiña, judua bera, ez da geldi egotekoa gure Mortara au. Jo du Espaiñi aldera ta bai

laister etxe bat iriki ere, Cádiz'ko Chiclana'n. Bere Lekaidiko bi lagunaz lanean ari da lurralde artan, baiña... ez oso gogoz. Euskalerrria du begiz jota, ez dago lasai emen gazte-ezi-etxe bat sortu arte. Baita egin ere. 1884'ko Uztailaren 15'n eldu da gure arteraiño.

Entzun dezaiozun berari: "Emen arkitu nai nuan ainbeste atsekabe ematen ari zitzaidan Nobiziadua. Nekeak neke! Lur aien edertasunak, mendietako zugaitz ugari ta belar guriak, bere ibar zoragarriak, bere lurraldetako giro osasuntsuak, eta batez ere bertako biztanleen fede ta katolikutasun jatorrak, lilluraturik nindukaten; eta billa nenbillena arkitu arte andik ez urtetzeko asmo sendoa artu nuan."

Eta bai bete ere burni baiño gogorrago dan onek! 1884'n azken aldera deitu ta ekarri ditu Oñatiara Chiclana'n zeudenetatik bi Laterandar, eta esan daiteke bete dala bere zoramena. Baiña erdizka bakarrik oraindik. Ez baidegu esan Oñati'ko Unibersidadean eskola irakasten jarri zirala Laterandar auk. Bai, Gazteiz'ko Gotzai Jaunak Seminario ttiki bat iriki du emen, zuzenbidea aitutzen ari geran Aita oneri emanaz. 50 ikasle ziralarik aurren urtean.

Laterandar auen gogoa etxea ta Eliza berena izatekoa da, noski, arrazoizkoa danez. Baiña oraindik sartu berriak dira, arrotzak, atzerritarrak. Ez dio ajolarik! Latz bizitzen oituak ez dute aurrera besterik egingo. Eta elburu ori lortzeko nor Mortara bezin ezia ta berezia? Izan ere erderaz maixukiro mintzatzen da, euskerara ba-daki dagoneko, ta aurki asiko da euskerari buruz lan sakon aiek ematen. Naiko du bere bataio-oko gertaera aiek edestea, nunai arrera ona ta eskuzabaltasuna arkitzeko. Entzuiogun: "Nola aiaz Espaiñiko nazioak eta Euskalerrriak batez eman zizkidan fedearen, erlijioaren eta eskuzabaltasunaren ezaugarriak, señaileak! Euskalerrriak eman zidan dirutzarik aundiena obra berrirako. Eta era berean nola aiaz nere biziaren nekeak, miñak eta naigabeak diru biltze ortan? Aundienetik tikieneraiño, Erregiñagandik eskaleaganaiño, eta alargun naigabetuaganaiño, danak, danak ematen zidaten zer-edo-zer, eta ni bazter guztietara i-

risten nintzan biltzera".

Ola bost urte luzeetan, jo ara ta jo onera. Eta ibillian ibillian 200.000 peseta bildu zituan bere zoramenari atsedean emateko. 1891'ko Maiatzean etxe eder, egurastu ta galanta bukatu ta eliza ere bukaeran dago.

Euskalerriak eman ziola dirutsarik aundiena zion goraxeago, ta euskaldunen berezko eskuzabaltasuna ta beste arrazoi bat dakarzki diru orren bide bezela: berak euskera bereganatua, alegia. Ta entzun ziotenak ala diote, euskera ederki bereganatu ta egoki mintzatzen zuala. Euskerari buruz au zion berak: "Euskera, izkuntzarik bereziena da ta oso zailla, bere sorrera berriz, ezezaguna. Esan ere ezin diteke zenbat kosta zitzaidan ikastea, ta euskal itzaldia nuan bakoitzean izugarritzko nekea somatzen nuan".

Ala ere azkenik bereganatu zuan, beste langintza asko aurrera atera zituan bezela. Erbeste ontan ez izan, ordea, eginkizun guztiak bete dituanik, eta gure gizona ere erabateko pozik gabe iritxi zan zartzarora ta Jaunagana. Ez gaitzen aaztu bere jatorriz: judua zan. Bere guraso, anai-arreba, ta tarteko guztiak judu-erlijioa zuten berena. Bera apaiz, Jesukristoren apaiz, munduan zear amaika bereganatu ditu, eta bere gurasoak Kristo Jaungoiko bezela ezagutu gabe joango ote zaizkio, ba?

Amabi urteen ondoren aitarekin bilduda. Besarkatu dio aitak, baiño... lengo lepotik arek burua: judu. Semea besarkatu ta une gutxi barru iltzen da. Bere amarekin egon da bi aldiz ere, azkenekoz gaixoa il zorian dagoala... bere seme-alaba guztiaz inguratua dago ordea, ta ez da ausartu seme apaiz ura naiko zuana esatera.


Zer naigabe aundiagorik au baiño? A, zer nolako malko samiñak ixuriko zituan semeak! Aita-amak izan ziran lenengoak, gero gerokoak!

Azkenik osasuna zearo ondatuta, itxurik, betiko atsedena artu zuan 1944'an, Lieja'ko urian.

Lasa'tar Prantzisko
C.R.I.

MUNDUA

NOLA SORTU ZAN



Izkutu orretxen billa dabil tza gaurko astronomilari, geologari eta beste jakintsu asko ta asko. Makiña bat uste zar utzi eta berriak asmatu egin dituzte lurraren sorrera nolabait ikasteko. Beti, ordea, "baiña" zuztarren batek galazten die beren teorieri siñiste osoa ematea. Ain zuzen ere, orrexegatik dira teori eta ez gertakizun.

Ez uste izan alabaiña, atzo goizeko jakin-miñak diranik auek. Bai zera! Orain zazpi milla urte idatzita zizuzten ejipto eta sumeritarrak beren kosmogoni-usteak. Ori, idatzi; euki, berriz, auskalo noiztik. Gizonak pentsatzeko almena duanekoxetik, bai!

Jakiña, leengizon aiek begi utsa besterik etzuten mundu zabaleko gertaerak ikasteko. Ala ta guztiz ere, eratu zituzten beren teoriak; eta mitoari tarte aunditxo emanda benik, explikatzen zuten nolabait, beintzat, munduko izadien jatorria. Israel ez beste erri guztientzat, Jainko ziran zeruko argiak.

Orain 3.500 bat urte asi ziran israel-

darrak: "Eguzkia, illargia ta izarrak Jainko ez baiña gauza utsak, sorkari utsak zirala" esaten. Eta teleskopioaren txulotik begia luzatu besterik ez daukagu, materizko pelota argi aundi batzuk baiña ez dirala jakiteko. Etzuan gizonaren buruak asmatu egi ori; Jainkoak berberak goiagertu zion: "Ni nazu Jainko bakarra eta ez duzu gurtuko besterik".

Aoz ao ibilli ziran aurrena egi oiek. Gero idatzita jarri zituzten; eta B I B L I A izenarekin ezagutzen ditugun Liburu Santuak dira. Biblia Jainkoaren itza da, eta berorrek esaten duana egia. Mundua, Jainkoak egin zuala esaten digu; eta nola sortu zuan ere kontatzen digu poliki asko.

Sei egun pasatu omen zituan Jainkoak mundua egiten. Eta bitarte ortan sortu omen zituan diran izaki guztiak: argia, itxasoak, eguzkia ta izarrak, landarak, animaliak eta gizona. Gero atsedean artu omen zuan zazpigarren egunean.

EGUN itza ez da emen 24 orduko tartea bezela artzen, egite bati buru emateko bear izan dan denbora-aldia bezela baizik.

Teleskopioa etorri bitartean, orrelatsu jarraitu zuten munduaren sortze usteak. Gero, ordea, begi luze ortatik zerua miazten asi ziran, eta Idazteunaren kontra jeiki ziran fedegabeak istillun: Bibliak eztuala egia esaten munduaren jatorria edestekoan; ipui-liburu bat zala. Sei egun ez baiña milla ta milloika urte asko igarota zirala lurraren asieratik gaurko egoerara etorri baiña lenago. Katoliko jakintsuek ere ikusten zuten ori, eta larritu ere egin ziran dexente, kokka ori nola berdinduko ote zuten ezin asmatuz.

Jakintzaen ume-donborako ostikoak ziran. Eldu ziran geroago oiek ere; eta nerbioak lasaitzeko eta korapilloa egoki eskatzeko beta eman zien denborak jakintsuei. Ura zan, berriz, ikus-teko gauza! Geologia eta Genesi'a alkarren kontra zeudela? Azken azkeneko teoriak esaten dutena bera dio Genesi'ak-eta! Elkartu ditzagun biok bai, eta ikusiko dugu zeñen pillito konpontzen diran bata bestearekin.

"ASIERAN, ZERU-LURRAK SORTU
ZITUAN JAINKOAK; LURRA, GAUZA NASI-
MASIA ETA EZERGABEA ZAN; ETA ILLUN-
TEAK ZEUDEN ABISMOAREN GAIÑEAN"...
(Gn. 1, 1-2).

Olaxe kontatzen digu Idazle Deunak munduaren sorrerako lenengo aldia. Gaurko geologariak, berriz, onoko au erakusten digute. Mundua ez da betidanik. Etengabe aldatzen ari da, eta betikoa balitz al ditezken aldaketa guztiak eginda izango zituzken, eta erabateko gelditasunera iri-
txita egongo zitzaken. Noizbait asia da, ba. (1)

"Zeru-lurra Jainkoak sortu zituala" esatean, berriz, dan materi guztia Jainkoak iratzana dala besterik ez du esanai Genesi'ak.

Jakintsuen esatez, materi ori, forma gabeko zera bat zan estriña. Partikula edo zipitxez osatuta zegoan, laino-tankerakoa zan; geldia zan, argi gabea, otza; oso lasaia, urria eta bakana. Gero, Jainkoak eraginda edo bere baitako indarrez mugitzen asi zan materi ori. Idea au nolabait adierazteko, "Jainkoaren arnasa uren gaiñean zebillela" esaten digu Genesi'ak.

"ETA ESAN ZUAN JAINKOAK: EGIN
BEDI ARGIA; ETA EGIN ZAN ARGIA" (Gn
1,3).

Materia mugitzen asi zanean, elkar josten eta igurtzitzen asi ziran kipitxak, eta berotu egiten zuten batak bestea. Ari zira elkar berotu eta berotu, eta guri guri eginda gelditu ziran azkenean: eta argi ematen zuten. Ez ori bakarrik. Azkengabeko burruka ori asi zanean, batzuk bateraka eta besteak kontraka jiratzen zuten materi-puxkatxoak; eta erabat nastu ziran. Sortu ziran nukleo edo buru batzuk, eta oien inguruan trinkotzen eta tupitzen asi zan materia. Orrela sortu ziran izar-taldeak edo sistemak. Gure sisteman, Eguzkia zan nukleoa. Materi pilla ikaragarria bildu zan orren inguruan. Pluton'en ibiltokia bitarterainoko guztia materi gurituz beteta zegoan. Bola aundi aundia baten antza-edo zeukan.

Materi mordo guztiori jira ta buelta zebillen bere ardatzaren inguruan. Aundiegia zan, ordea, eta periferi aldeko materia urrutiegi zegoan erditik, nukleoaren indarrak ondo lotua eukitzeko. Orregatik, urrutieneko zenbait puntuetan, kolokaena zeudenetan inola ere, nukleo berriak sortu ziran; eta auen jiran trinkotu zan aldamenetako materi puska aundi bat. Nukleo berri auk, erdiko nukleo nagusiaren inguruan bueltatzen asi ziran.

Izar piztua zan Lurra ere garai artan. Eta aldi luze luze batean argi zuria ematen zuan. Gero, argi oria ematen asi zan. Urrena, argi gorria. Azkenik itzali egin zan; eta Eguzkiak ematen zion argiarekin bizitzen asi. Aldaketa ortantxe jarri diteke Genesi'ko ura: "illunetatik banatu egin zuan Jainkoak argia" (Gn 1, 4).

" ETA ESAN ZUAN JAINKOAK:
EGIN BEDI MUGA-TARTE BAT UREN ARTEAN,
ETA BANATU BITZA UR BATZUK BESTEETATIK;
ETA EGIN ZUAN ORTZIA JAINKOAK; ETA BANATU EGIN ZITUAN ORTZIAZ BEEKO URAK ETA GOIKO URAK. ETA OLAXE EGIN ZAN" (Gn 1, 6-7).

Geologiak diogunez, Lurra etzan kolpean itzali; piskanaka piskanaka eta aldatze luzearen buruan baizik. Lurraren nukleoa sortu zanean, gai pisuenak erdira joan, eta ariñenak gelditu ziran azalean. Estrina, lurrun-antzean zeuden danak. Gero, bero-mailla jakin batera iritxi zanean, salda tankeran jarri ziran gai batzuk. Oztu zan geiago oraindik, eta salda orren gaineko zenbait gai mamitzen asi ziran; eta tortika edo azal bat sortu zan. Oso biguña eta melarra zan aurreneko azal ori; lurraren barrutik sortzen ziran zartetakoak aixa puskatzen zuten. Gaurko su-mendietan izan oi diran astinduen tankerako fenomenuak ziran. Askoz ere gogorragoak izatea beste alderikan gabe.

Lurra oztenago zijoan eran, lodiagotzen eta sendoagotzen ari zan gaineko tortika. LITOSFERA esaten diote jakintsuak tortika orri. Oraindik ordea, lurrunetan zeuden, ura ezezik, beste gai asko ere; oiek saldagiteko ainbat otz ez bai-

zuan artean egiten. Garai artako eguratsa, laino lodi-beltza besterik etzan; eguzkiaren argiari etzion batere pasatzen uzten.

Temperatura egokitu zanean, lurrunetan zeuden urak kondensatu, eta euritan jausi ziran. Olaxe eratu ziran lenengo itxasoak. Eurite ikaragarriak izan omen ziran aldi ortan; baiña ez uste izan aideko ur-laiño guztiak urtu ziranik. Ez. Mordo aundia geratu zan, artean, lurrun-itxuran. Dana dala asko arindu zan aidea; eta euritu etziran ur-laiñoak, gero ta lurretik urrutiago igo ziran. Orrela, tarte aundia egin zan itxasoko uren ta laiñoetako uren artean. Tarte orri FIRMA-MENTUA (ortzia) esaten zioten Genesi'a idatzi zaneke garaietan.

" ETA ESAN ZUAN JAINKOAK: BILDU BEDI ZERUPEKO UR GUZTIA TOKI BATEAN, ETA AGERTU BEDI LEGORRA. ETA OLAXE EGIN ZAN" (Gn 1, 9).

Itxasoak sortu ziran ezkeretik eratu diran lenengo lur-mailla edo estratoak, beebrikotik silurikoa bitartean daudenak dira. Lurtortika ortan ez da ageri legorreko ondarren arastorik; itxas-ondar dira danak. Ortik ez da ateratzen: garai artan legorrik etzanik; izatekotan ere oso eskaxa zala, baizik. Lurbira guztia itxaso zala esan diteke orregatio.

Aro guzti onen luzean, txit ugaritu ziran lurraren erupzioak. ENDOSFERAN, edo azal gorraren azpian zeuden gai asko, irten egiten ziran salda irakiñen antzean. MAGMA otsegiten diote salda orri geologariek. Ori gogortzen zanean, magma-pilla aundia eginda gelditzen zan. Itxasoko uren goibera baiño altuagoak ziran, eta uretatik gora jasotzen zuten beren tontorra. Urtokiak, beerriz, beeran gelditu ziran. Orrela sortu ziran mendiak; eta banatuta geratu ziran itxasoa eta legorra.

" ETA ESAN ZUAN JAINKOAK: EMAN BITZA LURRAK AZIAK, ETA ZEIN BERE KLASETA-KO AZIDUN BELARRAK; ETA ZEIN BERE MOTATAKO AZIDUN FRUTA-ARBOLAK. ETA OLAXE EGIN ZAN" (Gn 1, 11).

Aurreneko itxasoak egin baiño lenago, bero aundiegia zan Lurrean bizidunik egon al izateko. Gero batean, itxaso irakindu aiek piska bat oztu ziranean, orduan agertu ziran lenengo landarak. Geologi-maillak ikertzen baditugu, arritzeko batekin topatuko gera. Animaliak, landarak baiño lenagoko maillatan arkituko ditugu. Aldrebes dirala ez digu, ba, esaten Genesi-liburuak? Nola konpondu ori? Oso samurra. Animalien aztarnak baiño lenago landara-arrastorik ez arkitzeak ez du esanai, beste gabe, aiek baiño lenago landararik etzanik. Ba-zirala esateko, berriz, susmo eta zantzu asko eta aundiak ditugu. Ona batzuk.

Fosilak ematen duten kontuan, belar jale ziran aldi aietako animalia geienak. Belarrik eta landararik ez bazegoan, zer jaten zuten orduan? Gaiñera au: lurra eta lurreko meatz-gaiak dira bizitzari jaten ematen diotenak. Baiña animaliak ezin dezazke gai oiek lurretik artu eta bere-artan jan. Esate baterako: bai abereak eta bai gizonak burniaren eta karearen bearra daukate osasunez bizitzeko. Baiña ez gera karaarri edo burni puska bat artu eta sagarra bezela jaten asten. Burni ori eta kara ori aldatu egin bear dira, transformatu, organizatu, gero guk geuretu ta asimilatu al izateko. Aldatze ori, landarak egiten diete beren klorofilaren bidez. Landarak gero jan, eta oieta-tik artuko dugu guk, bear dugun karea eta burnia. Gaiñera, ikatz-maillak ere ba-daude, eta oiek ere landaraen ondarrak dira. Orra, ba, señale argi askoa, animaliak baiño lenago landarak ba-zirala esateko.

" ETA ESAN ZUAN JAINKOAK: IZAN BITEZ ARGIAK ZERUKO FIRMAMENTUAN GABA TA EGUNA BANATZEKO; ETA SASOIEK, EGUNEN, ETA URTEEN EZAUGARRI IZATEKO; ETA ARGIARENAK EGINGO DITUZTE ZERUKO FIRMAMENTUAN LURRARI ARGI EMATEKO. ETA OLAXE EGIN ZAN " (Gn 1,14-15)

Lurra izarbeltz egin baiño lenago eguzkia ba-zala esan ez dugu, ba, gorago? Bai. Baiña kontuan euki emen: laugarren egun ontan, sortzea ez baiña denboraren banatzaille eta argi izatea ematen diola Jainkoak Eguzkiari.

Lurrean bizitza agertu zanetik onako denbora guztia, lau alditan banatu dute geologariek:

AURREN-AROA, BIGARREN-AROA, IRUGARREN-AROA eta LAUGARREN-AROA. Geologian goitik beera kontatzen diran adiñak: azpirago eta zaarrago, gaiñerago eta gazteago. Aaztu ditzagun azkeneko iruak; goazen AURREN-ARORA.

Gaiñeko lur-tolestua belbeltza arkituko dugu: ikatzarria da. Arri beltz ori dana, aspaldi batean landara izandakoa da. Orain ere ezagun dute. Batzu batzuk 30 metro eta geiago luzekoak ziran. Gaurregungo animaliak eta landarak ez dira berdiñak toki otz eta toki beroetan. Bakoitzak bereak ditu. Garai aietan etzan ola. Bai landarak eta bai animaliak, berdin berdiñak ziran naiz poloe-tan, naiz ekuador-aldean. Batean esateko: tenperatura berdiña zegoan lurbira osoan AURREN-AROGuztian. Urte sasoiaren arrastorik ere ez da ageri: etzan negurik, ez udarik. PALEOTERMAL FENOMENUA esanda entenitzen dute jazoera ori jakintsuek: BERO-BERDINTASUNA euskeraz esanda.

Au litzake, jakintsuen ustez, orren zergaitia. Aideko urlañoak urtutzearekin galanki arindu zan eguratsa; baiña lodiegia zan artean. Gas eta lurrun geiegi zegoan atmosferan eguzkiaren argiari zuzen zuzen lurrera etortzen uzteko. Bai eguzki-argia eta bai beroa atmosferara iritxi bezin laister, zeartzen asten ziran; eta egurats lodi-estu artan refraktaturik, indar berdin berdiñean allatzen ziran, toki guztietan, lurraren tortik-azalera. Arrazoi beragatik, ezin zitekean antzeman eguna noiz asten eta noiz bukatzen zan: egunsentia eta inularrea bata bestearen segidan baizetozen. Illargia eta izarrak, berriz...; olakorik ba-zanik ere etzekian lurra orduan.

Denborarekin, gero ta geiago tupitzen eta kondensatzen ari zan ur-lurruna. Aideko gasak lur-azaleko gaiekin konbinatzen ziran; eta eguratsa ariñagotzen eta garbiagotzen zijoan berebat. Eundaka urte asko igaro ziran era ortan. BIGARREN-AROA aurrera samartuta zegoanean, dexente arinduta bide zegoan eguratsa; otz-bero-tokien eta urte-sasoiaren arrastoak agertzen dira garai ortan, beintzat. Inola ere urratuta zituan Eguzkiak odeitzar aiek. BIGARREN-AROAren erditik aurrera, argi eta garbi nabarmentzen dira klimaen eta urtesasoiaren desberdintzak. Gero ta nabarmentzenago doaz arrezkero.

Au ere bai gaiñera. Gorago esan dugu nola asi zan Eguzkia eratzen. Ori ere etzan bertan bera zertu: geldiro geldiro tupittu eta trinkotu zan, baizik. Jakintsuen ustez, garai orretantxe iritxi omen zan Eguzkia ere berorik eta argirik aundiena ematera.

Orra, ba: Eguzkiaren erpin-aldia eta Lurreko klima ta urtesasoen banakatzea BIGARREN-AROAren erdialdera gertatu baiziran, aro ortantxe jarri genezake Genesi'ko laugarren egunaren asiera ere. Garai artan asi baiziran zeruko argiak "denboraren, egunen eta urteen banatzaille izaten".

Beste erreparatu au ere egin izan da emen. Genesi'ak zer dala-ta jartzzen ditu landarak irugarren egunean eta eguzkia laugarrenean? Ez al da, ba, prexixokoa Eguzkia landaraentzako? Erreza da erantzuten. Goratxoago esanda dugu, landarak arri-egitetik eratu zala ikatzarria. Gara ortantxe izan zuan Lurrak gaurdaiñoiko landara-aldirik aundiena eta ugariena. AURREN-AROKo azken aldia da. ANTRAKOLITOS-AROA esaten diote jakintsuek: IKATZARRI-AROA euskeraz.

Denbora ontako landara-motak ikustatu ezkerro, KRIPTOGAMA BASKULARRAK ditugu geienak, GIMNOSPERMATAR batzuekin. Umedade aundia bear dute oiek. Eguzkiaren argia, berriz, zearka izatea naikoa dute. Ori bide dala, lasai asko asi eta ugaritu zitezkean, Eguzkiaren argia lurrera zuzen zuzen etortzen asi baiño lenago ere. Orra, ba, aria barrero konponduta.

" ETA ESAN ZUAN JAINKOAK: AGERTU BITEZ URETAN ANIMALI BIZIDUN ARRASTAKARIAK; ETA EGATU BITEZ LUR GAINEAN EGAZTIAK, ZERUKO ORTZIAREN ZABALEAN " (Gn 1, 20).

Irutan sailtzen ditu Idazle Deunak animaliak: uretakoak, aidekoak, eta legorrekoak. Bostgarren egunean, uretakoak eta aidekoak sortu zituala Jainkoak, esaten digu. Erkatu dezagun geologiaren erakutsiekin.

Guk dakigunez, AURREN-AROKo asieran agertzen dira lenengo animaliak. Eta urtakoak dira. Bidez jarrita dago, ba, oien sorrera aideko

edo lurrekoena baiño lenago. Zergatik ipintzen du, ordea, oien sorkundea bostgarren egunean eta ez lenago, aurreagotik ere arraiak ba-ziran ezkerro?

Jainkoak irazandako arraien artean: "soin luzedun arraiandian eta uretan jirabiratzten diran klase guztietako bizidun arrastakariak" aitatzen ditu Genesi'ak. A.Puig'en esatez, TELEOSTERO-ARRAIK dira Idazle Deunak adierazi nai dituanak; alegia, bizkarrezurra erabat ezurtuta daukatenak; ezagunenak eta berexienak omen dirala oiek-eta. Oiek, berriz, BIGARREN-AROA asita gero agertu ziran, urtesasoiak eta klimak desberdintzen asita ziranean. Orduan sortutakoak badira ere, ez ziran asko ugaritu eta zabaldu BIGARREN-AROA ondotoxo erdiratu arte. Beste itzetan esanda: Genesi'ko laugarren eguna oso aurreratua zala arrai-mota oiek ugarienera iritxi ziranerako. Txit oargarria da munduaren kondairan arrai-klase auen azaltzea; auek baidira bizkarrezurra erabat zertuta daukaten lenengo animaliak. Eta guztiz egoki artu diteke auen ugaritzealdia bostgarren egunari emateko.

Gaiñera, "uretako animali soin-luzedunak" itzetan ederki asko ipiñi diteke IKTIOSAURIO, PLESIOSAURIO ta olako reptil ikaragarri aien aipamena. Auek ere, BIGARREN-AROAREN erditik aurre-ra ugaldu ziran geiena.

Oar bat emen. Ba-diteke norbaitek esatea: gauza askotxo dituk auek, BIGARREN-AROAN danak sartzeko! Auxe esango dizut nik: jakintsuek esaten dutenez: 540.000.000 urte euki omen zituan BIGARREN-ARO orrek. Zertxobait egiteko beta ba-da ori gero!

Ez dira, baiña arraiak bakarrik bostgarren egunean egiñak. Aideko egaztiak ere egun ortantxe jartzen ditu Genesi'ak. Paleontologiak dienez, legorreko animalien arrastoak baiño geroago agertzen dira egaztien aztarnak. Ola ta guztiz ere, lurreko animaliak seigarren egunean egiñak bezela ematen dizkigu Idazle Deunak. Nola konpondu ori?

Begira zer nola explikatzen duten ori jakintsuek. Txorien ezurrak, oso txulodunak, lasaiak eta arroak omen dira. Ori dala-ta aixa desegiten omen dira. Bestetik, berriz, aidean ibiltzen ziralarik, lurgaiñean gelditzen ziran akaatutakoan; eta ola ezin zitezkean fosildu, lurpe-

ratuta edo urperatuta egotea bearrezkoa baida fosil biurtu al izateko. Beraz, ez da arritzekoa, txoriak asko ugaritu arteraino, luzaroan arrastorik ez gelditu izatea.

Genesi'a, gaiñera, ez da gelditzen TXORIEKIN bakarrik; EGAZTI itza esatekoan, "aideko animali egalari guztiak" adierazo nai ditu. Ola ulertu ezkerro, harriz, insektoak eta reptil egalariak ere sartu ditezke tartean. Erruz izan ziran auek BIGARREN-AROAN; eta batez ere IRUGARREN-AROAN iritxi ziran ugaritasunaren gelenera: txorijendea ugaldu zanean. Ederki ipiñita daude, ba, ureko animalien ondoren eta lurrekoen aurretik.

" ETA ESAN ZUAN JAINKOAK: EMAN BITZA LURRAK ZEIN BERE KLASETAKO IZAKI BIZIDUNAK: ABEREAK, REPTILAK ETA ABELUZUAK, BAKOITZA BERE MOTAREN KONTURA. ETA OLAXE EGIN ZAN " (Gn 1, 24).

Idazle Deunaren esatez, legorrekoak dira animalietan azkena sortuak. Eta iru sailletan banatzen ditu: etxe-abereak, lurrean arrastakatzen diranak, eta basoetako abeluzuak. Jakintsu-itzetan esateko, bitan sailtzen dira oiek danok: REPTILAK eta ERRAPEDUNAK.

Geologiaren erakutsiz, lenago dira animali arrastakariak errapedunak baiño. Jakintsuentzako, REPTIL-SAIL berean sartzen dira: bai legor-bustiko arrastakariak, eta bai legorrean bakarrik ibiltzen diran arrastakariak. Legorrekoetzaz bakarrik itz egiten digu Genesi'ak, eta oiekin soilik ari izango gera gu ere.

Estriñeko legor-reptilak, AURREN-AROAN azken aldera agertzen dira; baiña urrengo aroan azi ta ugaldu ziran gelenik, batez ere, BIGARREN-AROAREN erditik irugarrena bitartean. Aldi ontako zenbaitzuk 35-40 metro zituzten luzeeran. BIGARREN-AROA itzaltzearekin bat izkutatu ziran reptilaundi aiek, eta besteak ere asko urritu ziran. Ori dala-ta REPTIL-AROA esanaz deitzen dute jakintsuek BIGARREN-ARO ori. Iru klasetakoak izan ziran arrastakariok: lenengo uretakoak, urrena aidekoak, eta azkena legorrekoak. Ederki jarrita dago, ba, seigarren egunean, legorreko arrastakarien agertzea.

Errapedunak dira lurrean azkenena agertu ziran animaliak. BIGARREN-AROAN ere izan ziran banakaen batzuk; baiña, batez ere, IRUGARREN-AROA izan zan ERRAPEDUNEN-AROA.

" ETA ESAN ZUAN JAINKOAK: EGIN DEZAGUN GIZONA GURE BURUAREN IRUDIRA, ETA GURE ANTZE-RA; ETA MENDEAN IZZN BITZA ITXASOKO ARRAIAK, ETA ZERUKO EGAZTIAK, ETA LAUANKADUN GUZ-
TIAK, ETA LURBIRA OSOA, ETA LURGAINĒAN ARRAS-
TAKATZEN DIRAN REPTIL GUZTIAK. ETA SORTU
ZUAN JAINKOAK GIZONA... ETA AR-EMEAK EGIN
ZITUAN " (Gn 1, 26-27).

Gizona da lurreko bizikari guztien artean azken azkena agertutakoa. LAUGARREN-AROAN dauzkagu aurreneko gizon-aztarna seguruak. Oraindik ez dago arrisku gabeko pruebarik, gizonaren agerrera IRUGARREN-AROAN ipintzeko. 1958'an arkitu zuten BACCINELLO'n (Itali'an) oraindik idoro izan dan gizatan kerako aztarnarik zaarrena. IRUGARREN-AROKoa omen da; baiña oraindik ez dute jakintsuek erabaki benetako gizona dan ala ez. [Ikus: "UN HOMME AU TERTIAIRE?" par Nicolas Cor-te, ECCLESIA, decembre (Paris 1958) 89 or.].

Dana dala beste animalia guztiak baiña beranduago agertua da gizona. Gaiñera, izaki guztien artean garaiena eta bikaiñena bera da, adimenduna danez. Orregatik bidez euki genezake izadieren koro eta errege bezela.

Irakurle, zer iruditu zaizu guzti au? Ez dagola burruka aundirik jakintzaen eta Liburu Santuaren artean, ezta? Nik ez dizkizut gauzak xikomiko guztiekin zabaldu, tokirik ez baidago emen; baiña jaulki dizkizut, aundiaurkiñetan beintzat, jakintsuek gai ontan uste dutena.

* * * * *

Agur egin baiña lenago, esan bat zor dizut, irakurle. BIBLIAREN izen ona jakintzaren esanetatik zintzilika ez ote dagoan-edo pentsatua izango duzu, apika, bein baiña geiagotan. Ondo go-

goan jaso auxe: LIBURU SANTUAK EZ DIRA JAKINTSU-
AK EGITEKO, SANTUAK EGITEKO BAIÑO. Ba-ditezke
jakintsaren erakutsiak eta Idazteunarenak bao e-
tortzea; eta ez etortzea ere bai. Kontra egonda
ere berdin berdin da. Gauza jakingarriagoa dala-
koan eman dizut lantxo au; baiña au ez da BIBLIA
adierazteko bidea.

Gizonei zeruko bidea erakustea da Idaz-
teunaren muiña. Beste guztia, mami ori erakusteko
kera eta bide bat besterik ez da. Ba-dakizu, Idaz-
teuna egin zanean, gizonak etzekiten gaurkoak ain-
bat geologiaren berri. Beraz, gara artako ustee-
kin itz egin bearra zegoan aiek ulertuko bazuten.
Ori, berriz, itz egiteko modua besterik ez da.
Eta modu ori osatzen duten elementuak, ba-ditezke
gero aldatzea, eta okerrak izatea ere bai; baiña
itz modu orrekin adieraaten dana ori da mamia,
ori da Jainkoaren ITZA: eta ori ezin diteke inoiz
eta inola ere aldatu.

Askok uste izan dute: goi-agerpena ola-
ko itz eta pentsakera batean eman izan zaigula,
konsagratu egin dituala esan oiek Jainkoak, eta
or esanda bezelaxe izan bear dutela gauzak beren
izatean, eta ez bestela. Uste oker okerra da au(2).

Onatx, ba, ZAZPI EGUNEKO munduaren sor-
tze orrekin Zer esan nai digun Liburu Santuak.
Auxe da mamia: JABE dala egiazko Jainko bakarra,
eta orretzek egiñak dirala guztiak; eta Eguzkia
eta Izarrak eta Lurra... gauza utsak dirala, ta
ez jainko, garai artako jentilerri guztiak uste
zuten bezela. Eta sei eguneko lanaren ondoren
atseden artu zuala Jainkoak berak zaspigarren
egunean bai, eta gizonak ere jai egin bear duala
astearen azkeneko eguna. Gaiñerako guztia, oso
dotorea nai baduzu, baiña soiñekoa eta itz modua
besterik ez da.

Pernando Mendizabal, ofm.

- (1) Jakintzaren eta Genesi'aren arteko konponketa-
rako ikusi: Ignacio Puig, "LA EDAD DE LA TIERRA"
Colección Austral.
- (2) Ederki banatuta arkituko dituzu idea auek: E.
Galbiati-A. Piazza, "Pagine difficili della Bibbia"
(Antico Testamento), Milano (1955).

" YAKIN " entzako asmoak

Eskuen artean

daukagun aldizkari maite onen 7'gn. zenbakian, dei orokarra egiten zaio entzun eta erantzun nai duenari; eta geron iritzia motz-motza bada ere, gure kezutasuna nolabait leguntzeko naiez, emen fijoakizue, "YAKIN"lari yaukaloi, asmo txiki batzuek.

Goi-izarian ikusi nai izango genuke beti "YAKIN" aldizkaria. Eta ondo deritzaigu bertan aipatzen diran iru sailletan lanak erakustea: I.- "Teoloji-Filosofi-Sailla"; II.- "Kultura-Jakintza-Antze"; III.- "Elkar - izketa".

Ez gera sartuko, geron aldetik, lenengoan, ifundik ere gai ezpaikera; irugarrenaz ere ezer esan barik, bigarrenari buruz izango dira, gure gaurko lantxo onen bidea, agerrerazi nai ditugun iritziak.

Esandako zenbaki ortan, Aita Onaindia'k bere gutunaz idarokiten duenak ere zirikatzen gaitu, guziona dan kultura, Euskal-Kultura arazoan geron burua sarrerazteko.

Euskera gaizkatu nai dugu guziok; ontan beiñepain, bat gera; eta euskerarekin batera, gure euskal-gogoa ere. Bideak datoz gero ororen elburu ortaruntz joateko; eta bide oiek, ugari, geiegi apika, bakoitzak gurea dugu-ta. Dana dala, egokia beti, ahal izan ezkeru, guzienak ikusi ta aztertzea.

Euskeraren alde egiten ari dan lan guzia onuragarria da beti, lan-mota guziak ere supagarri izanik. Alaz ere, orain arte egindako lan guztiak, berez, alperrik edo dira elbururaino eltzeko; beren bidez eta neurrian berean burutu litezken beste eun bider aundiagoak, gogor egitean jarraiarren, besterik gabe, alperrik izango ditugu euskera eusteko.

Geron aburuz, euskera bizi, eda ta indartzeko, beste kultura-izkuntza guziak erabiltzen duten bidea bera eramatekoa dugu. Izkuntza guziak, bakoitzean ematen

dan irakaskintzan bertan, elikatzen dira, eta bide orren esker zabaltzen zaizkigu eta orrela gero ta indar aundia-
goz ikusten ditugu bizi.

Euskera; beste izkuntza bat izanik, bide ori bera
dugu berarentzako bearra. Euskera ama-baratzetan, lenengo
eskolan, bigarren irakaskintzan, Ikastola Nagusian eta
ikasi ta irakasteko izan ditezken toki guztietan. Alakotz,
euskal-irakaskintza osoa antolatzea zaigu bearra; antola-
tu ta ibiltzean jarri.

Amets utsa!, askoren aburuz. Nun orrelako irakas-
kintza antolatzeke ahalmenik? Eman dezagun orixe dela bi-
derik onena; erabiltzeko aukerarik espadugu... zertarako
ametsetan ari?

Ala ere, alan eta guztiz be, bide onena, bide
bearra, bide egokia izan ezkeru, naiz eta oraingoz, naiz
eta inoiz be, ibiltzen ikusteko ahalmenik euki bear espadugu
ere, bide ori ikusi, aztertu ta atontzea zaigu txit
bear-bearrezkoa.

Etze bat eraikitzeke, arkitektoa asten zaigu
bere asmoari buruzko planoak egiten; eta ez ori bakarrik,
ordea; etze orrek bear izango dituen gaiki ta zati ta a-
tal guziak nolakoak izango diran bearrak, eta dana zen-
batean lortu ditekene ere, arreta aundienaz ikusi ta begi-
ratzen du orrelako lan bat egiteke abiatzen danean; eta
gero, zenbaki ta zertzelada guziekin, etxea eraiki nai
duenari aurkezten dizkio arkitektoak bere lanak.

Orren antzekoa izan bear geron lana ere, nere
ustez. Euskal-kultura guzia egin eta jakintza gaietan eus-
kera sartzeko, gure euskal-irakaskintza guziaren planoak
gertu bearditugu, egitarau orokar bat alik eta zabalena
atontzen. Eta bein egitaraua gerturik, asi gaitezen, bakoi-
tzean norberak izan dezaken ahalmenaren arauz ibiltzen.
Asi, beti, gure etxe berezi orren onarrietan; auek gogor
jarri-ta, beren gañean jasoko ditugu lendabiziko ormak,
lenengo bizitzararaño eltzeke asmoz; iradurik gabe, bigar-
renaruntz abiatzeke gero; eta goruntz beti, azkenengo te-
llak jarri arte.

Asi gaitezan, bada, gure egitaraua izan liteken

ori nola marreztu dezakegun ikusten. Gaur gure Erri'ko irakaskintza guzia atontzea gure eskuetan izango balitz bezela, eta gure Erri au, izkuntzari buruz, nola dagoen erriz-erri zeatzez begiratzen. Eta bi elburu nagusi auekaurrean aukitzeko beti: I) Erri guzia Euskalerrri biurtzea, ots, "euskaldun-erri"; onela, era batez, euskera ta euskal-gogoa gaizkatu ta indartzeko. II) Biarko gure gizonak izango diran aurraen gerokoa.

Ba-daukagu gure lan-mayaren gañan gure Erri'a-ren lurtamu zabala; guzientzako irakaskintza antolatu bear dala-ta, lenengoz, bearrezkoa zaigun "muga" berezi bat lurtamu ortan marreztu bear; muga ortako alde batean, gure Erri'ko eskualde aundiena geratuko da ta, onen barnean, gure uri-buru aundienak ere; atal orri "erdaldun" izena jarriko diogu. Beste atala, trikiena, "euskaldun" izenaren ikurraz ezagutzeko.

Bi zati oien onmorioz, bearra zaigu irakaskintza osoa bi izkuntzetan, euskeraz eta erderaz antolatzea. Erderaz egitekoa errazena izango zaigu, onura gabe; gutxi gorabera, irakaskerak ahal den neurrian obeturik, oraintxe dagoena bera erabili ahal izango da, ikaskai gutxi batzuk gañeratzuz (eta beste batzuk kenduz, eiki); auetzek gutxienik gañeratzeko: Euskera, euskal-elertia, euskal-kondaira, euskal-lutelestia, euskal-eskubidea...; irakaskintza mail guztietan barna.

Euskeraz egitekoa izango da beti zaillago, naiz eta eskualde trikiagoan jartzekoa bada ere, naiz eta, lendabiziz, lenengo irakaskintzan ari bear izango badugu ere. Euskaldunentzat, euskera bidez erabiltzeko izango dugu; erdaldunentzat, galaz. Orra bereizitasuna.

Arreta aundia izan bear, ziñez, euskera bidez erabiltzeko; era orokarrean beñepein iñciz erabili ezpaita. Orrengaitik dagokigu, alik eta geyen, gure lan-sorosa zedarritzea. Orixe dala-ta, "ama-baratza" etan eta "lenengo eskolan" mugatu bear dugu, lenengo aldian, gure landa.

"Ama-baratz" etako bearra ez da oso zaila izango betetzea: abestiak, otoitzak, izkiak, zenbaki batzuek... "Lenengo eskola" koa dugu gure lendabiziko korapilloa;

eta auxe zernola dan onela esan dezakegu labur: Lenengo eskoletako gaiak euskeraz irakatsi ta ikastea.

Onezkero laukitua izango genuke len esan dugun gure Erri'ko lurtamua, erderaz eta euskerazko laukietan, bakoitzean bidezkoak izango diran beste marrezkiak egiteko.

Len bezela, orain ere, erraz izango zaigu marrezki oiek erdal-laukietan egitea. Euskerazkoetan gure luma jartzera goazenean, ona aurkitzen dugun lenengo oztopoa: lenango eskolako gaiak, batz bestea, berdin izkuntza guztietan. Euskeraz ematekoak, beraz, oietzek berak. Baña nun ditugu gai oietaz egindako euskal-liburu egokiak aski?

Ez dugu esango bat ere ez dagoela. 1958'garren-go "Euzko-Gogoa" k atera zuen bere lenengo zenbakian Bilbao'tar Yon jaunak, orain arte irakaskintzari buruz argitaratu diran liburu ta lanen berri zeatza ematen zigun. Beraz lan guzti oiek begien aurrean eukitzeko, mota onen beste edozein lan berriaren laguntza izan ditezten.

Esan ere, gutziago esan dugu, egindako lan oiek txarrak diranik; ez eta erabiltzeko egokiak ere ez dirala. Baña ba edo dute lan guzti oiek, ororena dan koska bat; erabillitako gai guztietan, idazle bakoitzak bereab, bere kabuz eta bere iritziz ari izan da, uste dugunez. Onela ez dugu, ez eta gai bakoitzean ere, izari batean bederen, bearra zaigun mail neurri-batasuna. Eta orra zergatik ez ditugun oso egokiak lendik egiñak ditugun erak.

Gai bakoitzerako, gero gardiz, oso bearra zaigu neurri-batasuna edo yardun-batasuna eukitzea. Batasun au, iru gauza auetarako zuzendua izan bear: Teknika-itzak (itz berri, geyenak), esakun bereziak eta euskal-kultura osoari buruzko norabidea. Egiatzko onura mardula izan ahal dezakegun, iru arpegi oiek, gai guztietan eta bakoitzean, kontuan ertsiki izateko.

Len esan dugunez, orain arte argitaratu dana ikusi ta aztertu egin bear; bertan, guzia ezpada ere, asko izango baita ontzat artzeko edo bideak argitzeko. Mende ontakoa batez ere, eta ertsiki "Eusko-Ikaskuntza" k, Oñati'n eta 1918'garren urtean izandako bere lenengo ba-

tzarrean asi, ta beste batzar eta beste egipenetan barna, burututako lan aundi ta egokiak be. Breziki Olabide Aita^{ren} iritzi ta lanak ere ikusi, astertu ta ikastekoak ditugu, trik egoki bearrak oso.

Gaiak beren garrantziarekiko mailletan jarri bear, urrenez-urren, eta egokiena izango danaz asteko; eta bat, bi edo iru izkelgietan argitaratzeko, beti alik eta gutxienetan gure ustez; ontan ere batasunari buruz jötzeko asmoz.

Beraz, gai bakoitzean irakasi ta ikasteko liburu bat egin baño lenago, egoki ta bearrezko "teknika-itzak" eta "esakun bereziak" aukeratzea; onenak, egokienak, eta idazle ta izkelgi guzientzako berberak izateko. Eta bein oien bilduma berezia buruturik, gai bakoitzerako ba., orduan liburua egiteko.

Gai guztietarako zaizkigu bearrak, beren bilduma bereziak. Eta ezina edo, gison batek bakarrik, lan aundi guzti ori burutzea. Noraezekoa zaigu, orrengatik, guzien laguntza alkartzea, eta alkartze ortarako bide erroa be aurkitzea.

Alkartze ortan, euskal-jakitunak, euskal-idazleak eta euskal-irakasleak sartzeko diña. Lenengo ta bigarrehak ba-dute beren alkartzeko bazkuna, "Euskal-Idazleen Alkartasuna", ain zuzen Arantzazuⁿ bertan 1956^{garrenean} jaioa. Oso egokia izango litzake, eskierki, euskal-irakasleak ere beste orrenbeste antolatzea, bazkun mardul bat eratzeko naikoak baitira.

Arantzazuⁿ ere, esandako urtean bertan, Euskaltzaindi^k antolatutako batzarrean agertutako asmoai buruz, kultura-sailletako itz bereziak eratzeko norabide eman zuen gure izkuntzaren zaindari nagusienak: "bai itzez, bai izkribuz, euskeraz erabiltzeko, erderara jo gabe, naiz ta nekegarriago izan".

Bi urrats, alakotz, gai bakoitzerako liburuak egiteko: 1^{goa}, teknika-itz eta esakun berezien bilduma atontzea; eta auxe oñarritzat arturik, 2^{na}, liburua idaztea.

Nola, baña? Beste biderik ohea agertzen ezpada, guzientzako antolatu ditezken batzaldiena egoki, apika. Gaiez-gai, ta bakoitzerako epai-mai berezi ta onak jarririk. Batzaldi bakoitzerako ere sari garrantzitsuak eskeiñiaz.

Teknika-itx bildumak bearrak ditugu: Irakaskintza gai guzietarako; lanbide orotarako; erti ta kulturazko mota danetarako; banaketarako; zuzentzari buruzko guzitarako; jolas eta kiroleterako... Itz batez, biziarekiko den guzirako. Eta gai bakoitzerako esakun berezienak ere.

Gai eta mota guzti oietatik, lenengo irakaskintzari dagokiona dugu, gure ustez, lenengo ta barrena; onen ondoren, irakaskintzaren beste mailletakoa, lanbideetakoa eta abar.

Noski, gure euskal-kultura guztia, ez da orrekin amaituko; nork jarri, izan ditekene bere edatzeari mugariki!

Alaz ere, bearrezkoa zaigu gure etxea oñarritik egiten astea, ahal dezakegun goieraño eltzeko. Ez dugu aitzu bear, Erri baten kultura guziaren giltzarria, bere irakaskintza dugula, lenengo eskolan bereziki asten dana. Ortik dagokigu asi, beraz, benetako uzta ederra noizpait gure sorterriak bildu ahal dezaken.

Ona emen, azkenez, orrela lortu genezaken alburu bikaña: Euskeraren bidez ikas dezaken jakintza guzia bereganatuko duen euskalduna, EUSKALDUN OSOA; iñoiz gure Erri'aren kondairan izan ez dana; eta bera lortuarren, gogo ta biotzez egiñal guztiak betetzeko gerturik egon bear dugu. Gure euskera ta gure Erri'aren gogoa gaizkatu ta eusteko, zabaldu ta indartzeko, ibilli bear dugun bidean barna jotzeko, orixe egokiena dalako.

Guziona dan lan aundia, aurrean burutzeko luguna; ezin ote oraintxe bertan nunbaitetik asi? Onak izango al gera bearra zaiguna betetzeko?

O A R R A K :

Eskerrik beroenak eman bearrean gure aldizkariari egin diozuen arrera ederragatik.

Eskerrik bizkorrenak ixilpean txanpon asko luzatu dizkiguten YAKIN aldizkariaren ongillleei.

YAKINen aldetik, milla esker.

Danak dakizute imprentaz ateratzeko asmoetan gabiltzala, baiña oraindik ezin izan dugu. Jainkoak argi ta lagun egin dezaigula ainbat laisterren gure asmoak betetzeko.

Urrengo zenbakia Aste Santuko egunak erabilliz atera nai genuke. Ortarako, ba, Martxoaren 15'erako eman euki nai genituke lanak, danak eta ugari.

A g u r i

Y A K I N

A R K I B I D E A

Zorionak! 3

TEOLOGI - FILOSOFI - SAILLA

Aita Santuaren itza. - Muxika'tar Errupin, O.S.B. . 6

Bergson'en Jainko intuiziñoa. - Intrausti'tar
Joseba, O.F.M. 12

Aingeruak eta gu Liturgian. - A. Bittor, O.S.B. . 21

Emigraziñoa Etikaren argipean. - Otaegi'tar Yon B.
Villaro'ko Sakramentinoa . . 26

Kristau filosofia. - Azurmendi'tar Juan, O.F.M. . . 36

JAKINTZA - KULTURA - ANTZE

Astronautika. - Saiza'tar Fernando, Sakramentinoa . 43

Bizitzaren agerraldiak.- Esnaola'tar Anastasio, ofm. 48

Literatura bidean. - Muxika'tar Luis Mari, Villa-
ro'ko Sakramentinoa. 56

Egungo erti berria. - Ulazia'tar Yon, O.F.M. . . . 62

Pio M^o Mortara, judar ta euskalzale. - Lasa'tar
Frantzisko, C.R.L. 68

Mundua nola sortu zan. - P.Mendizabal, O.F.M. . . . 73

AIKAR IZKETA

Urrestarazu jaunaren eskutitza, 86

Mixiolari baten eskutitza 92